anboto

TOKIKOM

2012ko uztailaren 20a
10. urtea - 468 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 2
Durangoko Udalak %7 igoko du udal beharginen soldata, bataz beste

Berbaz | 10
“Ezin dugu onartu egoera txarrean dagoen animalia batek horrela jarraitzea”

Jaiak | Gehigarria
Garai, Mañaria eta Mallabia

KIROLA | 15

Maider Unda urrearen bila doa Londresko olinpiadetara

Abuztuaren 5ean joango da Olinpiar Jokoetara, borroka librean lehiatzera

Undak aurreko olinpiadetan bosgarren postua lortu zuen, hori hobetzea da bere helburua

Maider Unda, Oletan ateratako argazkian.

DURANGALDEA | 4

Sindikatuak murrizketen kontra mobilizatu dira

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, OGT-LKN eta CNT sindikatuek Espainiako gobernuaren murrizketei erantzun zieten martitzenean. Lanbidek Iurretan duen egoitza alboan egin zuten protesta.

Durango | 3
Baserritarren Merkatuan ekoizpen propioa babestuta egongo da

Elorrio | 7
Elorrioko Kirol Taldeak botako du txupinazoa herriko jaietan

Otxandio | 7
Gazte Eguna ospatuko dute gaur Santamaña jaietan

Zaldibar | 8
Udan hasi beharko dituzte eskola eremuko lanak

HERRIRIK HERRI

Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Faustegoienako planak ere ez du batu oposizioa

Bilduk eta Aralarrek diote alokairuko hogei etxe gehiago egin ahal zirela; PSE-EE kritikatu dute

Oposizioak ez dauka batasunik Durangon. Joan zen astean, Faustegoienako planaren harira mezua bota zioten Bilduk eta Aralarrek PSE-EEri: "Aukera paregabea daukagu EAJk interes pribatuen aginduetara egindako politikak aldatzeko". Oraingoz ez dute lortu. Urtebete pasa da legealdia hasi zenetik, eta oposizioko alderdiek ez dute ildo bateratu bat garatu. EAJ gehiengo sinpleagaz dabil gobernatzen, 21 zinegotzitik zortzi dauzkalako. Ezkerreko taldeak batuz gero gehiengo osoa edukiko lukete, hamaika zinegotzigaz: Bilduk sei, PSE-EEk hiru eta Aralarrek bi. Baina, euren arteko hartu-emana ez dago sasoirik onenean, eta martitzenean egindako udal bilkuran ere egoera hori islatu zen. Hainbat gaitan ika-mikak eduki zituzten; handiena, Faustegoienan eraikiko diren babeseko etxeen inguruan.

Babes ofizialeko 119 etxe egitea onartu du udalak, EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin

Faustegoienan babes ofizialeko 119 etxebizitza egitea onartu du udalak, EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin. Horietatik 103 jabedunak izango dira, eta hamasei udalarenak, gazteei alokairuan emateko. Lur eremu hori udalarena da, eta saltzeagatik jasoko duen diruak sortu du polemika. Bilduk eta Aralarrek diote, diru horregaz 20 etxe gehiago egin ahalko zirela alokairurako. Euren susmoa da gobernu taldeak beste egitasmo batzuetako gastuak kubritzeko erabiliko duela. Jon Bingen Landabideak (Bildu) PSE-EE kritikatu du: "Zoriotea beharrezkoa da. Egitasmoari zati bat falta zaiola eta soberan dagoen dirua alokairuan berrerabiltzeko itxaropena daukala dio.

Dani Maezturen ustez (Aralar), proiektua ez da sozialena eta egokiena. Bankuek etxeak erosteko ia ez dutela krediturik ematen adierazi du, eta horregatik alokairua bultzatu behar dela. Ohartarazi du Odi-bakarreko promozioan 58 etxe eraiki zirela, eta 80 pertsonak uko egin diotela etxeari. EAJren izenean pozik azaldu da Goiztidi Diaz, eta egitasmoari garrantzia handia eman dio. ■ M. Onaindia

PSE-EEko zinegotzi Pilar Rios lehen planoan, eta Bildukoak bigarrenean, martitzeneko bilkuran.

Idoia Agorriaren esanetan (PSE-EE), akordioetarako borondatea beharrezkoa da

Liher Gonzalezek jarraipen aparatua topatu du autoan

Duela hiru hilabete aurkitu zuen; poliziak ipini ote zuen susmoa dauka

Liher Gonzalez gazte durangarrak jarraipen aparatua (GPSa) aurkitu zuen bere autoan duela hiru hilabete. Handik astebetera epaitegian salatu zuen, eta joan zen barikuan publiko egitea erabaki du. Bilbon eman zuen prentsaurrekoa Eleak mugimenduaren babesagaz. Antzeko kasua kontatu zuen beragaz batera Bonifacio Badillo ugaotarrak. Gonzalezen anaia preso politiko ohia da, eta Badilloren semea kartzelan dago uneotan. Horregatik, tresna horiek poliziak ipini zituen susmoa daukate.

Liher Gonzalez, mahaian, eskumatik hasita lehenengoa. A. Press

Gonzalezek dio kasualitatez aurkitu zuela GPSa, autoa garbitzen zebilela. Auto barruan ezkutatuta zegoen gailua: "Aparatua aurkitu nuen tokiagatik eta zeukan itxuragatik, garbi zegoen ez zela autoarena".

"Aurkitu nuen tokiagatik eta zeukan itxuragatik, garbi zegoen ez zela autoarena"

Antzerako kasu gehiago daudela ohartarazi du Gonzalezek: "Horietako asko Bizkaian dira". Eleak mugimenduak horrelako kasuetan salaketa judiziala ipintzeko deia egin du eta eskubide zibil eta politikoak aldarrikatu ditu. ■ J. D. / M. O.

PSE-EE: "Alkateak kirol hitzarmenen partida murriztu gura zuen"

Sozialisten ustez, oposizioak behartuta lortu da kirol arloko diru laguntza kopurua mantentzea

Kirol arloko hitzarmenen diru kopuruak bere horretan mantendu ditu udalak. PSE-EE pozik azaldu da, bere ustez Aitziber Irigoras alkateak hasieran zeukan asmoa aldatu duelako. Sozialistek diote partida murriztu gura zuela alkateak. PSE-EEren zinegotzi Pilar Riosek eman du aldaketa horri buruz duen iritzia: "Alkateak kirol elkarteekin sinatutako hitzarmenak harrokeriaz publiko egin dituen arren, berandu eta gainerako alderdiek behartuta egin ditu". Gobernu taldeari kritika egin diote sozialistek, gutxiengoan gobernatzen dutela esanez: "21etik zortzi baino ez dira, eta aurrekontuak luzatuta gobernatzen dute berriro ere, akordioetara heltzeko duten gaitasun ezagatik".

PSE-EE pozik azaldu da, bere ustez alkateak hasieran zeukan asmoa aldatu duelako

Riosen arabera, oposizioak aurrekontuen zirriborroari emandako ezezkoarengatik mantentzen dira hitzarmenak, "nahiz eta alkateak lotsa barik meritua beretzako hartu gura duen". Irigorasek arlo eta hitzarmen guztietan jaitsierak proposatzen zituela dio Riosek: "Doitasun eta gestio ona argudiatzen ditu, buzoneatu duen bere propagandarako aldizkarian 5.000 euro gastatzen dituen bitartean". ■ J. G. / M. O.

Abortuaren legea bere horretan uztea exijitu du udalak

PSE-EE alderdiak bultzatuta, abortuaren legea ez erreformatzea exijitu du Durangoko Udalak. Kritikatu dutenez, Espainiako Gobernuak legean aldaketak egiteko intentzioa dauka. Sozialisten mozioa EAJk, Bilduk eta Aralarrek babestu dute. PPk bakarrik bozkatu du kontra. Haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidea mantentzea eskatu du udalak mozioaren bidez. Diotenez, gobernuaren erreforma murriztailea da, eta emakumeen eskubideak deuseztatzeko ikuspegia dauka. "PPk bere politika kontserbadoreenaren alde egin du. Eskubide galera horrek arriskua suposatuko luke emakumeen osasun eta bizitzarentzat".

Kritikatu dutenez, Espainiako Gobernuak legean aldaketak egiteko intentzioa dauka

Espainiako sexu-eskubideen aldeko plataformaren deklarazioagaz ere bat egin du udalak. Deklarazioan, erabakitzeak libre egiten dituela diote emakumeek. "Eskubideen galerak sexu-heziketa lako oinarrizko gaietan atzerapausua dakar". ■ M. O.



Ebaluazioa amaituta, udaleko beharginen soldata igo dute.

Udal langileek %7 gehiago irabaziko dute bataz beste

Sei hilabeteko prozesuan lanpostuen sailkapena aztertu eta horren ondorioz hartu dute erabakia

Udal beharginek gehiago kobratuko dute Durangon. Lanpostuen sailkapena ebaluatu dute berriro, eta erabakia prozesuaren ondorioetako bat izan da. Sei hilabetean aritu dira azterketa egiten langileen eta agintarien ordezkariak. Beharginak, lanpostuaren arabera atalka daude sailkatuta, eta azterketa horrek puntuazio berriak ezarri ditu. Horregatik, igoera ez da kasu guztietan berbera izango, enpresa batzordeko kide Jose Ramon Lasargurenek azaldu duenez. Bataz beste, lan-taldearen aurrekontuan %7ko igoera suposatuko du aldaketa orokorrak: 473.100 euro urtero. Hala ere, Lasargurenek gogoratu du 2010etik hona ia %15eko jaitsiera eduki dutela: 2010ean %5eko jaitsiera jasan zuten, 2011 eta 2012an soldata izoztu diete, lan astea 35 ordutik 37ra altxatu, eta Gabonetako aparteko soldata kendu.

Lasargurenek gogoratu du 2010etik hona ia %15eko jaitsiera eduki dutela

PSE-EEk ez du bat egin; dirua langabetuak kontratatzeko erabiltzea proposatu du

EAJ, Bildu eta Aralarren botoekin onartu dute egitasmoa. Aralarreko Dani Maezturen iritziz, "harro egotekoa" da sasoi hauetan udalak beharginen soldatak igotzea. PP abstenitu egin da bozketan, eta PSE-EEk ez du bat egin ekimenagaz. Pilar Rios zinegotzi sozialistak egitasmoa atzeratzea eskatu du, egoera ekonomikoa hobetu arte. Gainera, inbertituko den dirua langabetuak kontratatzeko erabiltzea proposatu du. Maeztuk esan du kosta egiten zaiola ulertzea sozialisten jarrera. Lasargurenek dio kontra bozkatzea zilegia dela, baina ez duela ulertzen arrazoi hori erabiltzea. ■ M.Onaindia

Merkatuan ezingo da norberak ekoiztu bako produkturik saldu

Baserritarren Merkatuko araudi berria onartu du udalak behin-behinean

Zapaturo Durangoko merkatu plazan egiten den azokaren inguruko kezka agertu zuten baserritarrek duela urtebete. Euren baldintzak ez zirela onenak ohartarazi zuten. Esaterako, ez zeukaten leku finkorik. Gainera, birsaltzaileen presentziaz ere kexatu ziren. Batzuek, eurek ekoiztu bako produktuak saltzen zituzten. Baserritarrek aldarrikatu zuten merkatuan salduko ziren produktuek ingurukoak eta sasoikoak izan behar dutela. Urtebeteko beharraren ostean, udalak araudi berria onartu du, eta hemendik aurrera birsaltzaileek ezingo dute ortuaririk saldu plazan. Gozokiak eta loreak lako produktuak soilik baimendu dituzte. Saltzen diren produktuak ingurukoak eta sasoikoak izatea ziurtatu beharko da. Gainera, ordutegiak eta mahai-banaketak ere zehaztu dituzte.

Hemendik aurrera birsaltzaileek ezingo dute ortuaririk saldu plazan

Saltzen diren produktuek ingurukoak eta sasoikoak izan beharko dute

Araudia behin-behinean onartu dute, eta alegazioak abuztuan eta irailean aurkeztu ahal izango dira. ■ M. O.

"Akordio etikoa" lortu gura du udalak bankuekin

Etxe-kaleratzeak saihesteko M15en mozioa babestu dute Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEk

M15 Durangaldea mugimenduak etxe-kaleratzeen inguruko mozioa aurkeztu zuen martitzeneko udalbatzarrean. Dokumentuak hainbat eskaera egiten dizkie alderdi politikoei eta administrazioei. Finantza erakundeekin hipoteka praktiketarako "akordio etikoa" sinatzen ahalegintzeko konpromisoa hartu du udalak. Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEk babestu dute ekimena. Udalak bere aktibo ekonomikoak banku sinatzaileen artean birbanatuko lituzke.

Udalak, aktibo ekonomikoak banku sinatzaileen artean birbanatuko lituzke

Gainera, udalak gobernuei eskatu die kaleratzeak geratzea. Espainiako Gobernuari neurri bat gehiago exijitu dio: hipoteka araudia aldatzea. Banketxeek etxea bereganatzean, zorra kitatuta geratzea gura dute. ■ M. O.

DURANGALDEA

Gerediagako peajea, herritarren kritiken iturri

Gerediagatik Bilbora, Iurretatik baino 79 zentimo garestiagoa da bidesaria



Gerediagako peaje berria, ekainaren 23tik aurrera martxan dagoena.

Ekainaren 23an zabaldu zuen Aldundiak Gerediagako peaje berria, eta hilabete pasata lehenengo kritikak agertu dira. Prezioak atzera botatzen ei ditu erabiltzaileak, eta ez dirudi N-634 errepideko trafikoa arindu duenik. Bilbora joanez gero, Iurretan sartuta baino 79 zentimo garestiagoa da. Bidesari berria, batez ere Lea-Artibaiko erabiltzaileei begira eraikita dago. Horregatik, Lea-Artibaiko Bilduk Gerediagako peajea Iurretakoaren pare ipintzea eskatu du. Eskualde horretako herritarrak ekonomikoki zigortu dituztela adierazi du Bilduk.

Abadiño, Garai, Berriz eta Zaldibarko erabiltzaileak ere antzeko egoeran daudela esan daiteke. Hori bai, hurreko joan-etorriak egiteko abantaila ere ikusten dute batzuek. Izan ere, Gerediagatik Iurretarako tartea doan ipini dute bi noranzkoetan, N-634 errepidean trafikoa arintzeko helburuaz. Esaterako, Kepa Bengoak, Gerediagako auzotarrak, Durango-

Gerediagatik Bilbora joateko, batzuk Iurretan irtetzen dira, gero berriz autopistan sartzeko

ra joateko hartzen du: "Edozelan ere, horrek ez du ordaintzen auzoan obragaz egin duten kaltea". Gerediagatik Bilbora joateko, batzuek Iurretan irteten dute, gero berriz autopistan sartzeko. Horrela, 79 zentimo aurrezten dituzte. Bengoak aukera hori laster kenduko dutela uste du.

Javi Etxebarria berriztarrak beharrerako erabiltzen du autopista, autoeskolako irakaslea dateta. Iurretan sartzen da, Gerediagan beharrean: "Oso jende gutxik erabiltzen du". Berriztarrak, autopistak aspalditik doakoa behar lukeela dio. ■ M. Onaindia

Jose Luis Navarro Abadiñoko alkatea

"Abadiñoko herri barruko trafikoa gehitzea ekarri du"

"Egia da autopistaren sarrera-irteera apur bat hurbilago daukagula orain, baina herri barruko trafikoa gehitu digu", dio Jose Luis Navarro alkateak. Beste herriguneetatik ateratzea lortu duten trafikoa orain Abadiñotik pasatzen da: "Ez gaude prest beste herri batzuek gura ez duten trafikoa hartuko duen tentelak izateko".

Trafikoa gehiago hazten bada, neurriak hartuko dituztela dio alkateak: abiadura murrizteko neurriak, norabide bakarrak ezartzea edo bideak debekatzea aipatu ditu.

Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea

"Epe ertainera, Iurretarentzako oso ona da sarbidea"

Herri ikuspegitik pauso positiboa da Iñaki Totorikaguenaren ustez Gerediagako peajea. "Horrek, Iurreta erdibitzen duen N-634 errepidea zelanbaiteko etorbide bihurtzen lagunduko du".

Aitortu du ez duela igarri trafikoa jaitsi denik. Baina, uste du goiz dela oraindino balorazioak egiteko. "Epe ertainera, Iurretarentzako oso ona da Gerediagako sarbidea, eta igarriko da". N-634ko trafikoa lasaitzeko oinezkoei lehentasuna ematen dioten neurriak behar direla uste du.

"Azken urteotako murrizketa sozialik handiena da"

Hainbat sindikatuk eta eragilek deituta protesta egin zuten martitzenean Lanbideren egoitzan

Espainiako Gobernuak joan zen barikuan ezarritako neurri ekonomikoek berehalako erantzuna eduki dute. Martitzenean, Lanbidek Iurretan daukan egoitzara joan eta kontzentrazioa egin zuten hainbat beharginek. ELA, LAB, ESK,STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT-LKN eta CNT sindikatuek egin zuten herririk herri manifestazeko deia, baita 48 gizarte eragilek ere. Eguaztenean ere batu ziren Durangoko udaletxe aurrean.

"Azken urteotako murrizketa sozialik handiena". Horrela definitu dute Mariano Raxoiren gobernuak ezarritako neurri-sorta, prentsa ohar bidez. BEZ zergaren igoera, langabetuentzako sarrera jaistea eta administrazio publikoetako langileei kenduko dieten aparteko soldata dira ipini dituzten adibideak. "Horretaz gainera, bankari 100.000 euro emango dizkio zuloak estali ditzan. Horretarako badago dirurik". Politika hori "bidegabea eta ezmorala" dela kritikatu dute. Euren arabera, politika horrek gizartearen pobretzea dakar, oro har: "Atzeraldia larriagotzen dute langabezia handituz, babes soziala murriztuz, eta gero eta gehiagok hilabete amaierara heltzeko arazoak eraginez".

Mariano Raxoiren politika "bidegeabea eta ezmorala" dela kritikatu dute

Gainera, gezurretan ibiltzea leporatu diote Espainiako presidenteari: "Asteak dira bere benetako asmoa ezkutatzen ari dela, sasi informazioak zabaltzen diharduela, Bruselan negoziatzen ziharduenaz egia esan gabe".

Iurretako Lanbideren egoitzara joan ziren martitzenean protestako partaideak.

Bestelako neurrien eske

Egoeraren aurrean, alternatiba errealak izan dituzte berbagai protesta egin duten sindikatu eta eragileek. Borondate politikoagaz bestelako neurriak hartu daitezkeela adierazi dute: "Murrizketarik aplikatu barik, zerga eta politika sozialak aldatuz irten gaitezke krisi ekonomikotik".

Sindikatu eta eragileek gezurretan ibiltzea leporatu diote Espainiako presidenteari

"Zerga eta politika sozialak aldatuz irten gaitezke krisi ekonomikotik"

Raxoiren exekutiboaren azken erabaki hauek zer esana emango dute datozen hilabeteetan ere. Atzo, prentsaurreko bidez greba orokorra iragarri zuten aste honetan mobilizatu diren sindikatuek. 100 gizarte eragile ere batu dira greba deialdira. Irailaren 26an izango da. ■ M. Onaindia

aisia LEKEITIO
H ★ ★ ★

Aisia Lekeitio Hotela
Santa Elena etorb, z/g
48280 Lekeitio
Tel.: 94 684 26 55
Fax: 94 624 35 00
lekeitio@aisiahoteles.com
lekeitiorestaurante@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

HAINBAT OPARI ZURE ESKU, EZTEI BANKETEA LEKEITIOKO AISIAN EGINEZ GERO, 2012KO URRITIK 2013KO OTSAILERA:

- Dj saioa bi orduz
- Eztei Gaurako Suite-a + "Jarri Eder" pakete termala
- Autobus bat, 55 lagunekoa, gonbidatuak garraiatzeko
- 2. afaria edo txokolate erretilukada
- Cava, brindiserako
- Lore apainketa pertsonalizatua, mahaietarako
- Menu pertsonalizatuak
- Argazki erreportajerako prezio bereziak + ezkontza gonbidapenak debalde

Gutxienez 50 pertsonako ezkontzak. Beste kopuru batzuetarako, baldintzak galdetu.

BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

UZTAILEKO IRABAZLEAK: Itziar Barrenetxea eta Lourdes Ercilla. ZORIONAK!
Hurrengo zozketa irailean burutuko da.

BIDALI ZURE ERANTZUNA:
astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera

ATXONDO

Zorrak ordaintzen hasi direnez martxan dira Barraskiko obrak

Norvisak hiru epetan ordainduko ditu udalari zor dizkion 305.000 euroak; egin du lehen ordainketa

Barraskiko etxebizitzen proiektua martxan dago berriro. Atxondoko Udalak 2010ean geldiarazi zituen, Norvisa promotoreak 305.000 euro zor zizkiolako. Norvisak abal-emailea aurkitu du eta udalagaz zorrak kitatzeko egutegia adostu du.

Norvisak hiru zatitan egingo ditu ordainketak. Joan zen barikuan ordaindu zion lehenengo zatia: 120.000 euro. Lehen ordainketa egiterakoan udalak egoera desblokeatuko zuela adostu zuten. Beraz, udalak baimena emango dio dagoeneko ia eginda dagoen etxebizitza blokearen urbanizazio lanak amaitzeko, proiektua desblokeatuta.

Urbanizazio lanak eta etxebizitza blokea amaitzean, bigarren ordainketa egin beharko du Norvisak. Bigarren zatia ordaintzen duenean, udalak bizigarritasun baimenak emango ditu. Zati hori ordaindu eta sei hilabeteren barruan entregatu beharko du hirugarren zatia. Zorrak ordainduta, Apatako ingurune hartarako pentsatuta dagoen proiektu osoa gauzatu ahalko du promotoreak.

Bigarren ordainketa egiten duenean udalak bizigarritasun baimenak emango ditu

Apatan, Barraski deitzen zaion inguruan dago amaitugabeko etxebizitza blokea.

Udalak, likidezia hobetu

Norvisaren aldetik jasotako diruagaz udalaren likidezia hobetuko duela adierazi zuen Rosa Elizburu alkateak, asteleheneko udalbatzarrean. Horrela, udalaren zor batzuk ordaintzen hasteko aukera izango dute: "Zor handienekin hasiko gara; esaterako, Amankomunazgoagaz ditugunekin. Hornitzaile txikiekin nahiko egunean gaude". ■ J.Derteano

"Zor handienekin hasiko gara. Hornitzaile txikiekin nahiko egunean gaude"

Rosa Elizburu alkatea lanaldi erdirako liberatu dute udalean

Lan baldintzak aldatu zaizkio eta lanaldi erdiari aurre egin diezaioke; EAJk erabakia kritikatu du

Rosa Elizburu Atxondoko alkatea irakaslea da. Orain arte bere lan eskakizunek ez diote udalean liberatu moduan lan egitea ahalbidetu. Irailetik aurrera lan baldintzak aldatuko zaizkio eta posible du lanaldi erdirako liberatzea . Asteleheneko udalbatzarrak Elizburu lanaldi erdiz liberatzea onartu zuen. Bilduk eta EAJko zinegotzi bik alde bozkatu zuten eta bat abstenitu egin zen. Elizburuk 27.500 euro gordin jasoko ditu urteko.

EAJk erabakia kritikatu du prentsa ohar baten bidez. Jeltzaleek diotenez, 900.000 euroko zorrak ditu udalak eta, testuinguru horretan, alkateak lanaldi erdira "zertxobait gutxiago" kobratuko du Juanjo Nora alkateordeak lanardi osora baino, gaur egunego lana mantenduz. Erabaki hori "arduragabekeria" dela diote.

Bilduk dio soldataren zenbatekoa zehazteko, erakunde guztietan jarraitzen duen irizpidea erabili dutela. Hau da, liberatu aurretik lanean irabazten zuten berbera kobratzea: "Lotsa barik azaltzen dugu zenbat eta zergatik kobratzen dugun; EAJko kargu denek gauza bera egingo balute, harritu egingo litzateke bat baino gehiago". EAJ alde bozkatu eta gero kontra agertzeak "irizpide gabezia" erakusten duela diote. ■ J.D.

Rosa Elizburu alkatea, asteleheneko udalbatzarrean.

IZURTZA

Udalak 6.300 euro jaso ditu konpost ontziak erosteko

Aldundiaren diru laguntza hartuta, irailean ipini gura dute martxan ekimen bat Azterlanen bidez

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen sailak 6.300 euroko dirulaguntza eman dio Izurtzako Udalari, konpostaren inguruko ekimen bat martxan ipintzeko. Diru horregaz konpost ontziak erosi eta udalean eskaera egin dutenen artean banatuko dituzte.

Jasotako dirulaguntza eskatutakoa baino txikiagoa izan da, baina proiektua martxan ipintzeko nahikoa. 10.500 euro eskatu zituzten eta Aldundiak %60 eman die. Ekimena Azterlan teknologia zentroaren bidez gauzatuko dute. Azterlanek lau epealditan garatzeko plana du. Lehenengo liburuxka informatiboak banatuko dituzte herritarren artean. Ostean, sentsibilizazio kanpaina egingo dute eta formakuntza tailerrak emango dituzte. Hirugarren pausuan, konpostaren inguruko formazioa eskaini eta gero, atez ateko jarraipena egingo dute konpost ontziak jaso dituztenen artean eta telefono bidezko zerbitzua ere eskainiko dute. Ekimena oporren ostean, irailean, ipini nahiko lukete martxan. ■ J.D.

Konpost ontziak erosi eta udalean eskaera egin dutenen artean banatuko dituzte

GARAI

Jubilatuen bazkaria egingo dute domekan, jaien atarian

Martitzenean altxatuko dute jaietako Donien atxa Garain. Baina, santixauak ofizialki hasi aurretik ere egongo da ospakizunik. Domeka honetan jubilatuen bazkaria egingo dute. 14:00etan izango da, Herriko Tabernan.

Udalak antolatzen du bazkaria urtero, eta debalde da. Azaldu dutenez, 65 urtetik gorako herritarrei begirako bazkaria da, eta euren bikoteak ere gonbidatuta daude. Garaiko nagusien elkartean 65 urtetik beherako jendea ere badago; beraz, denek ezingo dute parte hartu. Udal ordezkariek ere bazkarian parte hartzeko ohitura daukate, adierazi dutenez. ■ M. O.

BERRIZ

Sanlorentzoetan dantzarien belaunaldiak batuko dira

Duela 60 urte sortu zen San Lorentzo dantza taldea; auzoko jaietan egingo dute ospakizuna

"Txantxa moduan". Horrela hasi ei zen dena. Duela 60 urteko San Kristobal Egunean, mutil koadrilla batek, handik hilebetera dantzari dantza egiteko erronka hartu zuen. Alejandro Aldekoa txistulariari laguntza eskatu, eta hilabetean ikasi zuten dantzatzen. Orduko erronka horretatik sortu zen gerora San Lorentzo dantza taldea. Ospatzeko, abuztuaren 12an jaiegun berezia egingo dute San Lorentzo auzoan.

Dantza taldeko kide Ion Aldekoak azaldu duenez, 50. urteurrenean herri mailako ekitaldiak antolatu zituzten, eta aurten "zerbait apalagoa" egitea da asmoa: "Dantza taldean izan direnak eta orain daudenak elkartzeko aitzakia izango da". Laupabost belaunaldi elkartuko dira. Goizean dantza emanaldia edukiko dute, eta gero bazkaltzeko elkartuko dira. Ostean, Aiko taldeagaz erromerian jardungo dute. Orain dela 60 urte dantzan jardun zutenei eskerrak emateko eguna izango da.

Gaur egun hamazortzi mutil dabiltza San Lorentzo dantza taldean. Nesken taldea ere egon izan da, baina orain ez dago nesken dantzetarako irakaslerik. ■ A.U.

"Dantza taldean izan direnak eta orain daudenak elkartzeko aitzakia izango da"

OTXANDIO

Gazteen bazkaria eta olinpiadak, jaien azken asteburuari ekiteko

Gaur Gazte Eguna ospatuko dute santamañetan; bihar San Martin ermitan batuko dira herritarrak

Gazteen eguna izango da gaurkoa Santa Maña jaietan. Eguerdiko bazkariaren ostean, gazte olinpiadak egingo dituzte 18:30ean. Koadrilen arteko txapelketan parte hartzen ari direnek zein beste edozein lagunartek parte hartu dezake olinpiadetan.

Gazte asanbladaren eta hainbat herritarren ekimenez antolatu dituzte jokoak eta proba originalak prestatzen ahalegindu dira. Horietako batean koadrilletako kideek oinetakoak erantzi eta gune batean pilatuko dituzte; oinetako multzo horren bueltan ilaretan ipiniko dira koadrila denak eta, egokitzen zaionari, oinetakoen bila irten beharko du ginkana antzeko bat osatuz. Gazte Eguna amaitzeko, 23:00etan, kontzertuak daude gaztetxean: Little John and the Howling Diabrus, The Mockers, MG eta Musikberbena.

Bihar, San Martin ermitan batuko dira herritarrak. Mezaren eta txistularien ostean, paella eta bolo txapelketak egingo dituzte. Domekan, Gerra Zibileko bonbardaketaren inguruko *Zerutik sua dator* ikus-entzunezkoa emango dute Andikona plazan. ■ J.D

Otxandioko saskibaloi taldeko gazteak txupinazoa botatzen.

ELORRIO

Patxi Landaburu, Ana Otadui, Leire Balerdi eta Jone Guenetxea, jaien aurkezpenean.

Elorrio Kirol Taldeak botako du Ferixa Nausietako txupinazoa

Bebe, Ohian Vega, Tony Ronald, Namek Planet eta Antton ariko dira

Elorrioko Ferixa Nausietako egitarauaren aurkezpenean, txupinazioa Elorrio Kirol Taldeak (EKT) botako due la azaldu du Ana Otadui alkateak. "Adin eta gustu guztietarako egitaraua". Horrela adierazi du alkateak. Guztien artean, artista hauek nabarmendu dituzte: Bebe, Tony Ronald eta Oihan Vega. 155.000 euroko aurrekontua dute aurtengo Ferixa Nausikoetako jaiek.

Irailaren 1ean, beraz, EKTko kideak izango dira jaiei hasiera emango dietenak, udaletxeko balkoitik txupinazoa botata. Patxi Landaburu EKTko presidenteak azaldu duenez, elkartean parte hartu duten guraso guztien lanari esker jaso dute txupinazoa jaurtitzeko gonbidapena. Baina, txupinazoa bota baino lehen hasiko da egitaraua martxan, abuztuaren 31n. EME Elorrioko Merkatari Elkarteak Aukera Azoka antolatuko du.

Ohian Vegaren *Zergatik praktikatzen dugu sexua erdaraz?* ikuskizuna, Namek Planet eta Anttonen kontzertuak ere izango dira ikusgai. Txosnetako ekitaldiak jaietako egitarauan sartu ditu aurten udalak. Gune horretan ariko da jaietako izar nagusia: Bebe. Valentziako aberaslariak irailaren 8an bisitatuko du Elorrio, Koadrillen Egunean.

Umeentzako, jolas-parkea eta hainbat ikuskizun prestatu dituzte, tartean Markeliñeren *Zoozom* ikuskizuna. Tailerrak antolatuko dituzte Txintxirri ikastolan. Nagusientzako egitarauan, irailaren 1erako Tony Ronalden emanaldia eta goatekea antolatu dituzte, Urarkan. Arrakasta handia izaten duten ekitaldiak ere izango dira: Sukalki Eguna, Nagusi eta gazteen danborradak, Ferixa Nausikoetako Azoka, edota koadrillen bazkaria beste askoren artean.

Kartela, Leire Balerdik

Ferixa Nausikoetako jaietako kartel lehiaketaren irabazlea Leire Balerdi elorriarra izan da. Jone Guenetxea Anbotoko zuzendariak 500 euroko saria eman zion martitzenean, Elorrion egindako aurkezpenean. ■ M.O.

MALLABIA

Osmatik eskolarako bide zatia konponduko dute

Hainbat istripu gertatzen dira bide horretan

Osman hasi eta Ermura arte doan bideak konponketa urgentea behar duela-eta, Aldundia eta udala hainbat bider batzartu dira azken urtebetean. Istripu asko gertatzen diren errepidea denez (aste honetan bertan pertsona bat hil da), irtenbideren bat bilatu gura izan du udalak. Hala ere, foru errepidea da eta lanak Aldundiaren ardura dira. Egoera honen aurrean, Aldundiak Osmatik eskolaraino doan zatia konpontzea erabaki du, udalak espaloia konpontzeko eta argiteriaren kanalizazioa egiteko lankidetza eskaintzen badie.

Eskolatik Osmara arteko errepide zatiari ez diote oinezkoentzako biderik egingo, nahiz eta udalak beharrezkotzat jo. Herrigunetik Ermura (Microdeco) doan bide zatia, hurrengo proiektu baterako utziko dute. Obrak udazkenean hastekoak dira, baina eskolatik behera doan espaloia, abuztuan egiteko asmoa dute. ■ J.G.

MAÑARIA

Liburutegiko inbentarioa egingo dute abuztuan

Mañariko Udalak liburutegiko inbentarioa egitea erabaki du. Horretarako, liburutegia itxi egingo dute abuztuan. Endika Jaio alkateak azaldu duenez, kontaketaz gainera instalazioari ordena eman eta garbitzeko asmoa ere badaukate. “Ikusita ez dagoela azterketarik, abuztuan ixtea erabaki dugu”.

Kopurua jakin guran

Material asko daukatela dio Jaiok. Dioenez, horietatik asko kaxetan sartuta daude, oraindino sailkatu barik. Horregatik, ez dakite benetan zein den material kopurua. Gainera, liburutegi berria zabaldu orduko kopuru hori zehatz ezagutu gura dute. ■ M. O.

Durangaldean labur

Martitzenean Santiago jaiak hasiko dituzte Orozketan

Txapligua botata, datorren martitzenean hasiko dituzte Santiago jaiak Iurretako Orozketa auzoan. Eguaztenean, 12:00etan, meza egongo da eta ostean luntxa. Domekan, eguerdiko meza eta gero, Mikel Deuna dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Segidan paella txapelketa egingo dute. Bazkalostean, 16:30ean, umeen jolasak egingo dituzte. Jaiak igel txapelketagaz amaituko dituzte.

Gerediaga-Elorrio bidearen gastua kritikatu du Bilduk

Gerediaga eta Elorrio arteko errepidea egiteko lanen kostua %42 igoko da Bizkaiko Bilduren arabera: 254 milioitik 362 milioira. Penintsulako errepiderik garestiena bihurtu dela diote; Supersurra baino gehiago. Kilometroko 58.387.096 euro kostatuko ei da. Premiazkoa ikusten dute "proiektu erraldoiekiko zaletasunean" oinarritzen diren politikak amaitzea.

Errogatibara joateko autobusa ipini dute

Abuztuaren 25ean Errogatiba Egunа ospatuko dute Urkiolan. Abadiñoko Udalak autobusa ipini du jubilatuentzat. Interesatuek uztailaren 20ra arte inskribatu ahal dira Traña-Matienako udal bulegoan, Errota kultur etxean edo mediatekan. Autobusa 10:30ean irtengo da.

Pinua gainera erorita zaurituta langile bat

Iurreta eta Amorebieta-Etxano arteko baso batean jazo zen ezbeharra atzo goizean. Pinuak botatzen zebilela bat gainera erori zitzaion. Mendi erreskaterako taldeak zauritua immobilizatu egin zuen eta ondoren helikopteroz Galdakaoko Ospitalera eraman zuten.

ZALDIBAR

Udan hasi beharko dituzte eskola eremuko lanak

Bilduren gobernu taldearen asmoa obra datorren urteko udan amaitzea zen

KZgunearen eraikina botatu dute, lehenengo, abuztuan.

Dauzkaten diru-soberakinak bankuekiko zorrak ordaintzera bideratu behar dituzte abendutik aurrera udalek. Horixe agintzen du Espainiako Gobernuak onartu duen Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunerako 2/2012 legeak. "Lege horrek behartuta", abuztuan ekingo diete eskola eremuko obrei, Arantza Baigorri alkateak dioenez. Lan horiek datorren udan abiatzea zen gobernuaren hasierako asmoa.

Eskolako obra ordaintzeko dirua aurrezten ibili da Zaldibarko Udala azken hilabeteetan, alkatearen berbetan. Dirua obretan aurreikusi legez inbertitzeko moduaren bila aritu dira asteotan, eta ondorioztatu dute lanak abendua baino lehen hastea dela soluzio bideragarri bakarra.

"Lanak ahal den arinen hasteko", udal aurrekontuan kreditu aldaketa egitea proposatuko du Bilduren gobernu taldeak datorren asteko plenoan. Izan ere, abuztuan KZgunea hartzen zuen eraikina botatzea da gobernu taldearen asmoa. Ostean, abuztutik eta abendura bitartean egin gura dituzte obrak hasteko tramiteak eta adjudikazioak.

Lanak hasteko, kreditu aldaketa proposatuko dute datorren asteko plenoan

Baigorrik onartu duenez, eskola eremuko lanak prozesu lasaiago bat jarraituz egitea zen euren asmoa. Baina, egoerak behartuta, 2012-2013 ikasturtean zehar burutuko dituzte obrak, "beti ere umeen segurtasunerako beharrezko neurriak hartuta, eta ahalik eta kalte gutxien eraginda".

Tramiteak azkartzeko

Obrak hasi ahal izateko, lanak Zaldibar Hirigintzen enpresa publikoaren bitartez egitea proposatuko du udal gobernuak, "tramiteak ahal beste azkartzeko".

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak hartuko du lanen kostuaren %60 bere gain, eta gainontzeko %40a udalak. Horrela adostu dute erakunde biek orain arteko negoziazioan. ■ I.E.

ABADIÑO

Lau egunetarako egitaraua prest Salbadore jaietarako

Hamabi Harri elkarteak prestatu du jai egitaraua

Abuztuaren 3an hasiko dituzte jaiak.

Abuztuaren 3ko iluntzean emango diete hasiera Gerediaga auzoko Salbadore jaiei: Donien Atxa jaso, txapliguak eta trikiti doinuak dantzatu. Gainera, euskal okelagaz egindako gisatua banatuko du Hamabi Harri auzo elkarteak jai eremura hurbiltzen direnen artean. Durangoko The Mockers hirukote gaztearen rock klasikoa eta bluesa izango dira gau horretan entzungai, eta Triki Ta Ke taldearen erromeriagaz amaituko dute jaien lehenengo gaua.

Bestalde, abuztuaren 4an, punta puntako bertsolarien saioa egongo da: Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiok jardungo dute, 22:30ean hasita, Salbadore jaietako bertso saioan. Maite Berriozabal ariko da gai jartzaile lanetan. Jaiegunetan, besteak beste, gastronomia lehiaketak eta umeen jolasak egongo dira. ■ I.E.

IURRETA

Kofradien ohorezko lehendakaria hil da

94 urte zituela hil da Gregorio Gorroño

2000tik Iurretako kofradien ohorezko lehendakaria, Gregorio Gorroño Uribegoitia, martitzenean hil zen, 94 urtegaz. Azken agurra eguaztenean eman zioten, Aita San Migel parrokian. 1955etik 2000. urtera Fauste kofradiako batzarkide izan zen. Kofradietako idazkari Mikel Sopelanaren berbetan, "ehuneko ehunean herriaren alde egin duen borrokalaria".

1973tik kofradienak diren 175 hektareako pinu-basoak lortzeko Durangogaz izan zuten gatazkan ere parte hartu zuen Gorroñok. Gero, Iurreta Durangotik desanexionatzeko eskaria etorriko zen: "Herriari galdetu ostean, 1978an aurkeztu zuten desanexionatzeko lehenengo eskaria kofradiek udalean. Iurreta, Goiuria, Fauste, Orozketa, San Marko eta Santa Maña, sei kofradietako zaharrenek aurkeztu zuten idatzia; tartean Gorroñok". Aurtengo Laixiar Egunean modu berezian hartuko dute gogoan Gorroño kofradiek. ■ A.B.

Mikel Sopelana: "Ehuneko ehunean herriaren alde egin duen borrokalaria"

SALBADORE JAIAK 2012

abuztuak 3 BARIKUA

- 20:00etan DONIEN ATXA jaso eta txapligu eta trikitixa doinuekin jaiei hasiera ematea.
- 21:00ak aldera jai-batzordeak, EUSKAL OKELAz egindako gisatua banatuko du.
- 22:30ean kontzertuak: THE MOCKERS eta TRIKI TA KE.

abuztuak 4 ZAPATUA

- 18:00etan ASTO LASTERKETA. Sariak: 1. 100 euro, txakolin kutxa eta txanpan botila, 2. 75 euro eta txanpan botila, 3. 50 euro eta txanpan botila. Gainontzekoei 25 euro.
- 19:30ean TORTILLA TXAPELKETA. Sariak: 1. 70 euro, gazta eta ardo botila bi, 2. 50 euro eta ardo botila bi, 3. 30 euro eta ardo botila bi. Gainontzekoei kriantza ardo botila. Partehartzaile guztiei piperrak banatuko zaizkie. Jai batzordeak KALITATEZKO EUSKAL TOMATEAz prestaturiko entsaladak eta ardoa jarriko ditu afari meriendarako.
- 22:30ean BERTSOLARIAK: Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Gaijartzailea: Maite Berriozabal.
- 0:00etan erromeria LUHARTZ taldearekin.

abuztuak 5 DOMEKA

- 12:00etan Meza. Ostean HAMABI HARRI dantzarien eta irlanderen dantza saioa.
- Goizean zehar MAKAILAU TXAPELKETA pil pil erara. Sariak: 1. 100 euro, gazta eta txakolin kutxa, 2. 60 euro eta txakolin botila bi, 3. 30 euro eta txakolin botila bi. Gainontzekoei botila.
- 13:00etan IGEL TXAPELKETA. Sariak: 1. 50 euro eta txakolin kutxa bat, 2. 30 euro eta txakolin botila bi, 3. 10 euro eta txakolin botila bi. Partehartzeko euro bat errifaren truke.
- 17:00etan MUS TXAPELKETA. Sariak: 1. 180 euro, txapelak eta txanpan botila bi, 2. 100 euro, ardo kutxa bi eta txanpan botila bi, 3. 50 euro eta txanpan botila bi, 4. 30 euro eta txanpan botila bi. Partehartzeko bikoteko 10 euro, errfifarako bi txartel trukean.
- 19:00etan KARABINAZ TIRO txapelketa. 1. kanporaketa. Partehartzeko euro 1, errifaren truke.
- 21:00etan AFARI HERRIKOIA
- 23:00etatik aurrera erromeria ANSORREGI, NARBAIZA eta LUTXURDIOrekin

abuztuak 6 ASTELEHENA

- 12:00etan Meza. Ostean aurreskua eta atzeskua dantzatuko dira.
- 13:00etan jai batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.
- PAELLA TXAPELKETA. Paella-ontziak eguerdirako 14:00etan aurkezteko dira. Sariak: 1. 75 euro eta txakolin kutxa bat, 2. 50 euro eta txakolin kutxa. Partaideei errifa txartela. Goizean zehar trikitilariak izango ditugu jai gunea alaitzen.
- 17:00etan BRISKA TXAPELKETA. Sariak: 1. 140 euro, garaikurrak eta txanpan botila bana, 2. 100 euro, txakolin kutxa eta txanpan botila bana, 3. 60 eurp eta txanpan botila bana, 4. 40 euro eta txanpan botila bana. Partehartzeko 8 euro, errifaren truke.
- 17:00etan UMEEN JOLASAK. Jokoak denentzat, sariak denentzat.
- 18:30ean KARABINAZ TIRO. 2. kanporaketa. Kanporaketen ostean finala. Saria: karabina.
- 20:30ean erromeria ANSORREGI eta bere taldea.
- 21:00etan HAINBAT BERTSO ETA KANTA Jon Maiarekin afarian. Afari ostean ERROMERIA.
- 01:00etan errifaren zozketa eta 02:00etan koloretako suekin jaien amaiera.

LAGUNTZAILEAK:
ABADIÑOKO UDALA, ESTAMPACIONES BIZKAIA, MAHATS frutadenda, URTIAGA iturgintza, ETXETXO inmobiliaria, DIBA kooperatiba, SAN ANTONIO okindegia, SERRATU itxiturak s.l., EROSKI Abadiño, NORIKA karabinak, SERAFIN tailerrak s.coop., EGUZKI elektrizitatea etxea, HAZI fundazioa, MURUETA baserria, EREÑA erretegia eta ALKIMAX

BERBAZ >

"Inork ez gaitu behartzen animaliak etxean edukitzera; izan gaitezen kontsekuente"

Animalien abandonu kasuetan eta tratu txarren aurrean laguntza eta zaintza eskaintzeko lan egiten du ASAAMek

Kalean botata katu bat ikusi zuenean gerturatu zen Isabel Rodriguez ASAAMera (Animalien Laguntzarako Milorden Lagunak Elkartea). Bizkaian ehun bazkide ditu elkarteak, eta txakurren eta katuen alde egiten dute lan batez ere.

Isabel Rodriguez Mateo •

- Durangarra
- Bizkaiko ASAAM elkarteko kidea.

Nondik dator ASAAM elkartea?
Milord txakurra dela-eta jaio zen elkartea Palentzian (Espainia). Tratu txarrak jaso zituen Milordek, eta neska batek etxean hartu eta deialdi bat egin zuen laguntza batzeko. Erantzun oso handia egon zen, eta animalien laguntzarako elkartea sortu zen. Bizkaian duela lau edo bost urte sortu zen delegaritza.

Zelan ezagutu zenuen elkartea?
Kalean hainbat egun botata zeramatzan katu bat topatu nuen Durangon. Elkartera deitu nuen eta zer topatu nuen kontatu nien. Esan zidaten albaitaritza klinika batera eroateko, eta ikusiko genuela. Bertan ingresatu genuen, eta orain nire amak dauka; adoptatu egin genuen, eta primeran dago. Askotan jendeak egoera honetan ez daki zer egin, eta babesa behar du.

Kalean hainbatek ikusiko zuen katu hori, eta deitu ez.
Arlo honetan sentsibilitate falta handia dago. Laguntzeko premia denek ikusten dute jende nagusiagaz, gosea dutenekin... Baina animaliekin ez da gauza bera. Getxon duela egun gutxi katu bat hartu dugu. 25 egun zeramatzan kalean hanka bat dindilizka, eta inor ez zen gai izan hartzeko. Hartu genuenerako hanka kendu behar izan zitzaion. Askotan ezin duzu etxera eroan, edo albaitarien gastuak ordaindu, baina babeserako elkarteetara deitu dezakezu, guk [elkartean] kasuaren berri eduki dezagun. Jendearen ezezagutza handia da; askok pentsatzen dute txakurtegian animaliak ondo egoten direla, eta ez da horrela. Edozein albaitarirengana joz gero, elkarteon berri emango dizute.

Soco izeneko txakurra basoan arbola bati lotuta topatu dute duela gutxi. Hainbat gaixotasunen artean, sarna dauka.

"Animalia abandonatu baten berri emateko baino, gehiagok deitzen du animalia batekin jarraitu gura ez dutelako"

Zer irtenbide eskaintzen duzue?
Gurekin kontaktatu eta, animaliaren kargu egin ezin direnen kasuan, ahalegintzen gara harrera etxeak bilatzen. Albaitariaren eta janariaren gastuak gure kargu egoten dira. Gero, adopziorako jendea bilatzen ahalegintzen gara. Adopzio kasuetan galdeketa bat eta bisitak egiten ditugu jabea izango dena ondo ezagutzeko. Kontratuan zehazten ditugu jabeen betebeharrak: animalia zaintzea, esterilizatzea eta edozein aldaketaren berri guri ematea. Kontrola oso beharrezkoa da.

Tratu txarrak jasandako animalia osatzeko diru asko behar izaten da.
Bai, eta guk bazkideen ekarpenekin eta donatiboekin egiten dugu lan. Premia handia dago eta laguntza behar dugu. Orain momentuan 4.000 euroko zorra daukagu klinika batekin bakarrik.

Jende askok jotzen du zuengana?
Egia da geroago eta jende gehiagok deitzen digula, baina animalia abandonatu baten berri emateko baino, gehiagok deitzen du animalia batekin jarraitu gura ez dutelako. Deitzea irtenbide ona irudi-tzen zait, txakurtegira eroatea baino hobea, zalantza barik. Baina tira, hor mentalizazio lana egin behar da; animaliak ez dira altzariak, sentitu eta sufritu egiten dute. Inork ez gaitu behartzen etxean animaliak edukitzera; beraz, izan gaitezen kontsekuente.

Uda garaian abandonu kasuak ugaritu egiten direla esan ohi da.
Horrela izaten da. Azkenean, oso erraza da animalia bat abandonatzea. Katuen kasuan, oso erraza da. Txakurretan, txiparen kontua ez dago batere kontrolatuta; guk txip bako txakur asko topatzen ditugu, eta oso erraza da txakur bat kalean uztea. Animalia horiek erregistratuta egon ezean... Duela gutxi burdin hesi batetik botatako txakur bat topatu dugu, belarri zati bat galduta, haginkada asko dauzka aurpegian... Horrelako kasu pilo bat kontatu ahal dizkizut. Guk, animalia bat topatzean udaltzainei abisatzen diegu beti, jabea agertuko bada, badaezpada. Baina animalia bat ikusten badut, hezurretan, haginkadez josita, ez nioke jabeari bueltatuko. Animalia txarto topatzen badugu, jabeari jarraipen bat egiten diogu. Egoera txarrean dagoen animalia batek horrela jarraitzea ezin dugu onartu.

"Edozein albaitarirengana joz gero, elkarteon berri emango dizute"

Katu asko kalean bizi da, jabe barik.
Hor arazo handia dago herri guztietan. Udalek araudietan debekatu egiten dute kaleko katuei jaten ematea. Hori bide errazena da, baina ez inteligenteena. Katu kolonia horiek kontrolatuta egon beharko lirateke. Klinika batzuek euren burua aurkezten dute katuak merke esterilizatzeko. Hernanin, adibidez, kontrol hori egiten dute. Errespetatzen dut jendeari animaliak ez gustatzea, baina hortik eta hiltzen uztera... ■ A.Ugalde

Informazio gehiagorako:
asaam.vizcaya@gmail.com

@anbotokultura

KULTURA>

MUSIKA>

Jazz eta folk aireak datoz Malitik, AEBetatik eta Euskal Herritik Elorriora

Hiru kontzertu, antzezlan bat, eta dantza eta irudiak uztartzen dituen ikuskizun bat egongo dira uztaila amaitu orduko Musikairen ikusgai; plazan izango dira 5 saioak

Dozena bat ikuskizun ekarri ditu Musikaire jaialdiak uztailerako, Elorrioko plazara. Horietariko bost, datozen egunetan izango dira gozagai. Kontzertuak dira uztail amaierarako programatu dituztenetariko hiru: AEBetatik datorren jazz kontzertu bat, eta Maliko eta Euskal Herriko folk doinu zaharberrituak izango dira entzungai.

Hazmat Modine taldea ariko da zuzenean, bihar, Musikaire jaialdian. New York hiriko taldea da Hazmat Modine. Jazzagaz batera blues, reggae, klezmer eta country doinuak eskainiko dituzte Elorrioko plazan.

Frantzian bizi da Fatoumata Diawara, eta bere jaioterriko, Maliko, tradizio musika eta nazioarteko beste musika estilo batzuen eraginak batzen ditu bere kantetan. Uztailaren 22an izango da bere ahotsa plazan entzungai.

Agus Barandiaran trikitilariak eta Korrontzi taldean kide dituen musikariek gaur zortzi eskainiko dute kontzertua. Euskal folkari haize berria ekarri diete.

Azkenik, Elorrioko Logela Multimedia taldearen eta Kukai dantza taldearen elkarlanak itxiko du aurtengo Musikaire. ■ I.E.

EMANALDIAK

Hazmat Modine, Uztailaren 21ean, 22:30ean, plazan.

Fatoumata Diawara, Uztailaren 22an, 22:30ean, plazan.

Korrontzi, Uztailaren 27an, 22:30ean, plazan.

Morboria teatro, Uztailaren 28an, 20:00tean, plazan

Logela & Kukai, Uztailaren 28an, 22:30ean, plazan.

"Elizperako bereziki sorturiko irudiak proiektatuko ditugu"

'Mapping' teknikagaz eta Kukaigaz kolaborazioan jardungo du Logela Multimedia taldeak uztailaren 28an. Imanol Garaizabal taldekidea aritu da lanaz

Zer sortzaileren elkarlanetik sortutakoa da ikuskizuna?
Logelako hiru lagunok gabiltza, bideo ekoizpenean bi eta musika arloan beste bat. Kukai taldeagaz kolaboratzen aritu gara.

Lehenago ere jardun duzue Kukairekin elkarlanean, ezta?
Bai, aspaldi *Latidos* egin genuen Kukairekin. Elorriokoak izanda, eta Musikaireren aukera aprobetxatuta, ekoizpen hau egitea proposatu ziguten. Horrela bururatu zitzaigun istorioa.

Zertan datza ikuskizuna?
Euren ibilbideko lanen errepaso bat egingo dute Kukai taldekoek: koreografia laburrak hautatu dituzte, eta Kukairen dantzei irudiak ipiniko dizkiegu guk.

Zer berezitasun dauka lanak?
Mapping deritzon teknikagaz landu ditugu irudiak. Arkitekturarekin eta bolumenarekin sinkronizatuta proiektatzen dira irudiak *mapping* teknika honegaz. Elorrioko elizperako bereziki sorturiko irudiak proiektatuko ditugu. Arkitekturaren neurrira egindako irudiak dira eskainiko ditugunak. Gure irudi eta efektuak dantzekin eta arkitekturarekin uztartuko ditugu.

Beste lanen batean baliatu duzue teknika hau?
Bai, erabili dugu lehenago, baina gauza txikiagoak egin izan ditugu. Teknika hori erabiltzen da, esaterako, irudi batzuk eszenografian sartzen direnean. Teknologia berriek, proiektore potenteagoek, irudiak azalera handiagoetan emateko aukera eskaintzen dute, eta irudi konplexuagoak sor daitezke.

"Gure irudi eta efektuak dantzekin eta arkitekturarekin uztartuko ditugu"

Konplikatua izan da lana espazio horretara moldatzea?
Teknika honen berezitasuna da irudiak leku zehatz baterako diseinatzen dituzula. Aurretik egindako lan guztiak ez dizu balio. Gune horretara egokitu behar dituzu irudiak. Kasu honetan ere, emanaldi bakarra izango da.

Atzetik lan handia dauka lanak, baina behin bakarrik eskainiko duzue?
Egia esan, konplikatua da ekoizpena, eta denbora daramagu ekoizpena lantzen. Baina, behin ikusteko sortu dugu, bai.

"Teknika honen berezitasuna da irudiak leku zehatz baterako diseinatzen dituzula"

Zer harreman dago irudien eta koreografien artean?
Koreografiak ere moldatu egin dira espaziora. Kukaikoek hamabi koreografia eskainiko dituzte.

Londresen aurkeztu dute 'mapping' teknikagaz egindako lan hau: *vimeo.com/44928319*

DANTZA>

Siberia eta Venezuelako dantza tradizionalak Durangaldean

Siberiako Omsk taldea gonbidatu du Kriskitin taldeak Durangoko Nazioarteko Folklore jaialdira; eta uztailaren 27an Venezuelako dantzak eskainiko dituzte Berrizko jaialdian

Hamabigarren edizioa da aurtengoa, Nazioarteko Folklore jaialdia antolatzen duena Durangoko Kriskitin dantza taldeak. Bihar izango da emanaldia, eta Siberiako dantzariek ere jardungo dute dantza saio horretan. Uda Kalean Bizi egitarauaren barruko ekitaldia da.

Omsk herrialdeko kantu eta dantza taldea gonbidatu du Kriskitinek aurten emanaldira. Mende laurdeneko historia du talde horrek, eta Errusiako herri kantak eta gaur egungo musikarien lanak ere eskaintzen ditu. Errusiako herrien tradizioak zaindu eta garatzen ditu taldeak.

Duela 50 urte sortu zuten Omsk taldea.

Munduko kulturen aniztasunak dakarren aberastasunaren isla izan gura du Kriskitin dantza taldeak antolatzen duen Nazioarteko Folklore jaialdiak. Dantza eta musikaren bitartez durangarrei eta ingurukoei munduko beste kultura batzuk ezagutzera ematen dizkiote, eta bertako folklorearen berri ere zabaltzen dute.

> Venezuelako Guanaguanare taldea gonbidatu dute Berrizera

Uztailaren 27koa da Berrizko folklore jaialdiaren hitzordua. Venezuelako Guanaguanare taldea gonbidatu dute Berrizen emanaldia eskaintzera. Uztailaren 27an, Olakuetako frontoian izango da emanaldi hori. Umeek euro bat eta helduek bost euro ordaindu beharko dute sarrera.

Portugaleteko Elai Alai dantza taldeak antolatzen duen jaialdiaren bitartez lotu dituzte Durangoko eta Berrizko saiook. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza
Bertsolaria

EUSKEEEEERAZ

Aste honen lehen egunetan, ikerketa soziolingustiko baten emaitza kezkagarriak jakinarazi dizkigute. Delako azterketaren arabera azken urteotan euskaldun elebidunen kopurua igo den arren, erabilerak beheranzkoan jarraitzen du. Ez dakit zuei, baina niri zer pentsatua eman dit honek guzti honek. Etxerik-etxe inkestarik egin ez arren, aspaldi konturatu ginen gure herrietan zer gertatzen ari den baina badirudi batzuetan egunkarietako zifrak muturren aurrean jartzea behar izaten dugula erreakzionatzeko. Gaitz erdi horrela denok esnatuko bagina...

Azken asteotan ez dakit zenbat aldiz esango genuen "Sara, euskeeeeraz!", "Irati eta Josu, euskeeeeraz!". Igerilekuan, eskulanetan, futbol zelaian... "Euskeeeeraz!". Egunotan zuotako asko ere udalekuetan ibiliko zarete begirale, eta honezkero ondotxo jakingo duzue zelako nekea sortzen duen bai umeentzat, bai hezitzaileentzat, eten barik gauza bera errepikatzen egoteak. Hain neketsua da, ezen hasieran haurrei animo edo aholku gisa esaten zaiena, bukaerarako agindu bihurtzen da.

Esparru askotan hainbat euskaltzalek egiten duen ahalegin itzelari ezelako meriturik kendu barik, autokritika egin beharrean gaude. Euskal hiztunak gora baina erabilera behera; zerbaitetan ez gara asmatzen ari. Eguraldi ona eta udako planak gora-behera, ez diezaiogun kontzientziari oporretara joaten utzi; kurtso berrira begira badugu zer hausnartua eta.

MUSIKA>

Entzuleak ere kantari, Bandak etzi eskainiko duen kontzertuan

Plateruen plazan eskainiko dute kontzertua, domekan, 20:00etan, Durangoko Tabira Musika Bandak, eta emanaldira bertaratzen diren entzuleei abestien letrak eskainiko dizkie, entzuleek ere parte hartzea gura dutelako. Jendearen kolaborazioa eskatuko dute kantuekin: *Bésame mucho, Cielito lindo, Aita San Antonio, Xalbadorren heriotzean,* edota *El barrio Madalena*.

Bandaren denboraldiko azken kontzertua da etzikoa, eta Juan Manuel Sáez Etxabek jardungo du taldea zuzentzen. *Campanera* pasodobleagaz hasiko dira, eta Duke Ellington edo The Blues Brothersen jazz piezak ere joko dituzte. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA>

Zaldibarko argazki rallya irabazi du Joseba Arginzonizek

Joseba Arginzoniz zaldibartarrak jaso du Zaldibarko argazki rallyaren lehenengo saria. Ilargi argazki taldeko antolatzaileek azaldu dutenez, 28 lagunek parte hartu dute rallyan aurten: horietatik hamabost zaldibartarrak izan dira.

Soraluzeko Carlos de Cosek jaso du lehiaketako bigarren saria, Rafa Iraeta zaldibartarrak hirugarrena, eta Antonio Villanuevak herriko saria. Beraz, argazki rallyan banatu dituzten bost sarietatik hiru, Zaldibarko argazkilariek jaso dituzte. Gazteen saria, Durangoko Leire Rodriguezek jaso du. Hamazazpi urtetik beherako hiru partehartzaile aurkeztu dira. ■ I.E.

MUSIKA>

Namek Planet: "Oso polita, oso hunkigarria, ahaztezina"

"Oso polita, oso hunkigarria, ahaztezina" izan zen joan zen barikuan Bilboko BBK Live jaialdian jotzea Elorrioko Namek Planet taldekoentzat. Banden Lehia irabazi ostean, saria Bilboko musika jaialdi erraldoian jotzea izan zen.

Kanta berriak prestatzen dabil Namek Planet, eta udan ahal beste kontzertu eskainiko dute. ■ I.E.

Iban Gorriti

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
eskatu ezazu
menu BONOA
ordaindu 9 menu
eta 10 jan
1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10. dohainik
ABUZTUAN ITXITA EGONGO DA
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

DO NOT DISTURB, NO MOLESTAR
Vaiven Circo
EZKURDIN
Uztailak 29 • 20:00
UDA KALEAN BIZI
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

Santixau eta Andramari jaiak

GARAI MAÑARIA MALLABIA

anboto

Garaiko jai egitaraua

UZTAILAK 22, DOMEKA
• **14:00.** Jubilatuen bazkaria.

UZTAILAK 24 MARTITZENA
• **20:00.** Donien atxa ipini. Ostean, ezpatandantzariak.
• **23:00.** Erromeria: Laja II eta Narbaiza.

UZTAILAK 25 , EGUAZTENA
• **10:30.** Txistularien, dantzarien eta agintarien kalejira. Ostean, musika.
• **11:00.** Meza nagusia San Migel elizan. Ostean, Santiago irudiaren prozesioa Elizabarriraino, Agintariena eta Gernikako arbola dantzatuz. Ezpatadantzariak plazan.
• **18:00.** Pailazoak
• **18:30.** Briska txapelketa plazan.
• **22:30.** Erromeria: Elortza anaiak.

UZTAILAK 26, EGUENA
• **10:30.** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.
• **11:00.** Meza nagusia Elizabarrin. Ostean, Santiago irudiaren prozesioa parrokiaraino. Ezpatadantzariak plazan eta gero ezkonduen aurreskua. Trikitilariak egongo dira giroa alaitzen.
• **19:00.** Tortilla txapelketa.
• **21:30.** Erromeria, Ti-Tau taldeagaz.

UZTAILAK 27, BARIKUA
• **18:00.** Mus txapelketa plazan.
• **22:00.** Bertso saioa: Igor Elortza, Jon Maia, Uxue Alberdi eta Julio Soto. Gai-jartzailea: Natxi Aranburu.

UZTAILAK 28, ZAPATUA
• **13:00.** Durangaldeko asto lasterketa. Ostean, trikitilariak.
• **14:30.** Bazkari herrikoia. Erromeria Oba Neuke taldeagaz.
• **23:00.** Erromeria, Gaubela taldeagaz.

UZTAILAK 29, DOMEKA
• **18:00.** Asto probak: Vitorio Celaya, Satxibar, Zengoittigane elkartea eta Kepa Bilbao.

UZTAILAK 30, ASTELEHENA
• **17:00.** Korrika txikia. Umeen jolasak.
• **23:00.** Erromeria: Luhartz.

UZTAILAK 31, MARTITZENA
• **11:00.** Meza. Ostean, dantzariak eta Durangaldeko igel txapelketa.
• **18:30.** Asto probak: Iurretako Isidro, Goizeder, Igor Otaolea eta Zubibarri.
• **22:30.** Erromeria, Ansorregi taldeagaz.
• **24:00.** Errifen zozketa. Gero, txokolate-jana.

Erromeriaren bueltan batuko dira Santiagon hasi eta San Inaziora arte

Zazpi taldek joko dute Garaiko eszenatokian, eta uztailaren 28rako bazkari herrikoia eratu du jai batzordeak

Martitzenean altxatuko dute Donien atxa Garain. Uztailaren 31ra arteko jai luzea egingo dute, eta batez ere musikagaz gozatzeko aukera edukiko dute. Erromeria da tradizio herriko jaietan.

Aurreko urte batzuetan rock kontzertua ere antolatu izan dute bezperan. Baina, aurten aste barruan jausten dela-eta, ez egitea erabaki dute jai batzordekoek. Horren ordez, trikitilariak ibiliko dira tabernaz taberna.

> Aurten, plazan beharrean frontoian egingo dute bazkari herrikoia

Guztira zazpi erromeria taldek joko dute Garaiko eszenatokian: Laja II eta Narbaiza bikotea, Elortza anaiak, Ti-Tau, Oba Neuke, Gaubela, Luhartz eta Ansorregi. Horien artean, jende gehien Luhartzek eta Gaubelak erakartzea espero dute jai batzordeko kideek. Gaubelak uztailaren 28an joko du, eta Luhartzek 30ean.

Bazkarirako, plaza txikiegi

Uztailaren 28rako deitu dute bazkari herrikoia. Aurten, plazan beharrean, frontoian egingo dute. Antolatzaileek diote iaz proba egin zutela plazan, baina lekua txiki geratu zitzaiela. Gainera, bazkalostean guztia batu beharra izan zuten dantza egiteko. Frontoian, erromeria hastean dantza egiteko zein jesarrita jarraitzeko aukera edukiko dute. Herritar asko batzen da bazkarian urtero, eta oraingoan ere antzeko aurreikuspena egin dute jai batzordekoek.

Bertso saioa izango da Garaiko jaietako ekitaldi esanguratsuenetakoa. Urtero bertsozale asko erakartzen ditu Garaiko jaialdiak. Aurten, Igor Elortza, Jon Maia, Uxue Alberdi eta Julio Soto ibiliko dira kantuan. Uztailaren 27rako antolatu dute bertso jaialdia. Gauez izango da, 22:00etan hasita. Lau bertsolariek Natxi Aranburu gaijartzailearen gidoiari jarraituz abestuko dute.

Igor Elortzak Bizkaiko txapelketan parte hartuko du udazkenean, eta lehiari begira mentalizatzen edota kokatzen hasita dago. Garaikoa lako saioetan garrantzitsuena bertsolariek eta entzuleek gozatzea dela dio, baina entrenatzeko ere ez ei datoz txarto: "Aukera ona da berriro arreta handiagoa ipintzen hasteko txapelketan inportanteak izan daitezkeen kontuetan: gaiak zelan tratatu, pertsonaiak zelan landu, alderdi teknikoak...". Garaiko esperientziez galdetuta, "gau aro ederrak" izan ohi direla kontatu du Elortzak. Aurten ere halakoa izatea espero du.

> Igor Elortza: "Aukera ona da berriro arreta handiagoa ipintzen hasteko txapelketan"

350 euro jasoko ditu asto proben irabazleak

Zortzi astok parte hartuko dute proba txapelketan. Uztailaren 29rako eta 31rako iragarri dituzte saioak, eta bigarren egun horretan emango dituzte sariak. Irabazleak 350 euro eta manta jasoko ditu, jai batzordekoek azaldu dutenez.

Uztailaren 29ko tiraldiak 18:00etan hasiko dira. Vitorio Celaya, Satxibar, Zengoittigane elkartea eta Kepa Bilbaoren astoek egingo dute proban. Hilaren 31ko saioa 18:30ean hasiko da, eta egun horretan Iurretako Isidro, Goizeder, Igor Otaolea eta Zubibarrirenak ariko dira.

> Zortzi parte-hartzaileek edukiko dute saria, baina sailkapenaren arabera diru gutxiago jasoko dute

Zortzi parte-hartzaileek edukiko dute saria, baina sailkapenaren arabera, diru gutxiago jasoko dute. Bigarrenari 300 euro emango dizkiote, eta postu bat behera geratu ahala aurrekoak baino 25 euro gutxiago jasoko dute. Horrela, zortzigarrenak 150 euro poltsikoratuko ditu.

Bertsolarien jaialdiagaz aurten ere "gau ederra" osatzea itxaroten dute

Uztailaren 27an izango da bertso-saioa, 22:00etatik aurrera: Elortzak, Maiak, Alberdik eta Sotok kantatuko dute bertan

Mañariko jai egitaraua

ABUZTUAK 14, MARTITZENA

• **19:00.** Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera.
• **20:00.** Andra Mari dantza taldearen alardea.
• **21:30.** Herri afaria.
• **23:00.** Erromeria, Luhartz taldea.

ABUZTUAK 16, EGUENA

• **11:00.** Meza, eta ostean, dantzariak.
• **12:00.** Herriko pelota torneoaren finala.
• **17:00.** Gazteen jokoak.
• **18:00.** Izurtzako dantzarien ekitaldia, eta txistorra plazara gerturatzen direnentzat.
• **22:00.** Antton, Zea Mays eta Los Zopilotes Txirriaos.

UZTAILAK 15, EGUAZTENA

• **10:30.** Kalejira txistulariekin.
• **11:00.** Meza Kirikiño abesbatzaren parte-hartzeagaz. Ostean, dantzariak.
• **12:00.** Umeen jokoak.
• **13:00.** Pelota partiduak. Mañariko pilota eskolako gazteak, eta gero: Goñi II-Arraztoa eta Uriarte-Jaio.
• **16:30.** Umeen jokoak.
• **17:00.** Karabina jaurtiketa.
• **17:30.** Umeentzako magoa.
• **18:00.** Mus txapelketa.
• **22:00.** Arantxa eta Pantxo.
Ostean, erromeria, Kupela taldeagaz.

ABUZTUAK 17, BARIKUA

• **13:00.** Trikipoteoa.
• **14:00.** Paella txapelketaren amaiera, eta ostean, bazkaria.
• **17:00.** Briska txapelketa.
• **18:00.** Kalejira Txomin Bedar trikitilariekin.
• **22:00.** Durangaldeko taldeen rock kontzertuak: Zarraparra eta Poliputos.
• **00:00.** Pitxitxi erretzea, eta ostean, Gozo-gozo taldeagaz erromeria.

Jai batzordeak antolatu ditu jaiak aurtengoan

Abenduan hasi zituzten jaiak antolatzeko batzarrak; hamabi gaztek parte hartu dute

Abenduan zabaldu zuen Bilduren udal gobernuak jai batzordean parte hartzeko deialdia. Dozena bat herritarrek erantzun zioten udalak egindako deialdi hari. Ordutik, aste birik behin lehenengo, eta astero gero, Mañariko jaiak hamabien artean antolatzeko batu dira.

Urteak ziren Mañariko jai batzordea deseginda zegoela. Udalak enpresa bati enkargatu izan dio azken urteetan jaiak antolatzea.

> Aste birik behin batu dira lehenengo, eta astero batzartu dira gero

Orain urte batzutako batzordekideen seme-alabak dira jai batzorde berri hau osatu dutenak. Herriko hamabi gazte dira jaiak antolatzeko inplikatu direnak: jai egitaraua pentsatu eta garatzeko ardura hartu dutenak.

Orain aste batzuk, batzordekideek eurek aurkeztu zieten prestatu duten jai egitaraua herrikideei. Udalbatzar aretoa bete egin zen deialdi hartarako, eta herritar asko agertu omen zen jaietan behar den guztian laguntzeko prest: barran txandak egiteko edo garbiketagaz laguntzeko prestutasuna adierazi zuten herritar askok. "Jaiak egiteko ezinbestekoa den laguntza", eskaini zieten herritarrek batzordekideei.

Besteak beste, herritarrek gustoko dituzten ohiturazko hainbat ekimen mantendu egin ditu jai batzorde berriak egitarauaren barruan. Esaterako, iaz 180 lagun batu zituen afari herrikoia egingo dute, jaien lehenengo egunean, abuztuaren 14an. Ohiko lekuetan ipiniko dituzte laster salgai herri afarirako txartelak.

Ohiturazko hainbat ekimen mantendu egin ditu jai batzorde berriak.

Jaien hasierako afaria herritar askorentzako egunik politena izaten dela adierazi du Eneritz Areitio batzordeko kideak. Afariaren ostean, erromerian batuko dira herritarrak jaiaz gozatzera.

> Iaz 180 lagun batu zituen afaria egingo dute jaien lehenengo egunean

Mañariar askok parte hartzen duen jaietako paella txapelketa ere ez da egitarauan faltako. Abuztuaren 17an da sukaldaritza zaleen gustoko hitzordu hori.

Bestalde, iaz berreskuratu zuten beste ohitura bat ere mantenduko dute, aurtengo jaietan: jaien hasieran Pitxitxi maskota ipiniko dute, eta jaien azkenengo egunean erreko dute, aurtengo jaiak amaitutzat emateko.



Kontzertu erakargarriak lotu dituzte abuztuaren 16rako

Elorrioko Anttonek joko du Zea Mays eta Los Zopilotes Txirriaos taldeekin batera; kontzertu eta erromeria gehiago ere egongo dira

Dedikazio bereziagaz dihardute Antton Uriarte elorriarrak eta bere taldeak Mañariko jaietan eskainiko duten kontzertua prestatzen. Aprobetxatu egin gura dute aukera, "Durangaldean ez baitugu kontzertu asko eskainiko". Diskoagaz alderatuta, kontzertuak "biziagoak, intentsoagoak" izaten direla dio taldeari izena eman dion abeslariak. Dioenez, zuzenekoan dena ez da baikorra: "Mezu kritikoak ere azaleratzen ditugu kontzertuetan".

Gorantz erori diskoa aurkezteko biragaz dabiltza azken hilabeteetan Antton Uriarte eta bere taldekideak. Uriarteren berbetan, "asko eskertzen den erritmo lasaian" ari dabiltza biran. Bertsio edo kanta berriak sortzeko tartea

> Antton Uriarte: "Mezu kritikoak ere azaleratzen ditugu kontzertuetan"

ere atera ahal izan dute azken hileotan taldekideek. Ukitu berria eman diete biran zehar diskoan jaso zituzten hainbat kantari. Durangaldeko Antton boskoteagaz, Zea Mays Bilboko laukoteak eta Los Zopilotes Txirriaos nafarrek ere joko dute.

Bestalde, jaien azkenengo egunean, abuztuaren 17an, Abadiñoko Zarraparra eta Durangoko Poliputos taldeek joko dute. Erromeriarako ere hainbat aukera izango da Mañariko jaietan: Luhartz, Kupela, Arantxa eta Pantxo, eta Gozo-gozo taldeagaz.

aserradero
zugazagoitia
agirre
maderas
Aldegoiena, 2-a
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel-Fax: 94 681 87 98

JAVIER BIZKARRA GARRAIOAK
Karga erabilgarria
18000 kg
Andra Mari, 19-1D
Mañaria (Bizkaia)
Tel.: 659 178 332

HARATEGIA - URDAITEGIA
BIZKARRA
BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA
ODOLOSTEAK
Tel.: 94 681 69 45 • Mug.: 615 78 12 47 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

HERRI-TABER
EGUNEKO MENUA - PLATER KONBINATUAK
KAZUELATXOAK - OGIBITARTEKOAK
OTORDUAK ENKARGUZ
Herriko plaza. Tel.: 94 620 02 78 MAÑARIA

Mallabiako jai egitaraua

Abuztuak 12, DOMEKA
• **12:00** Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituaren finalaurrekoak: Mallabia I Kirol Etxean.
I.Agirre-Isasmendi
Araiztegi-Etxaniz
Pradera-Saez
M.Agirre-Arrieta

ABUZTUAK 14, MARTITZENA
Umeen Eguna
• **11:30** Umeen txupinazoa botako du alkate txikiak.
• **12:00-14:00 /16:00-18:00** Umeentzat parke berezia: puzgarriak, salto jokoak... Parkean.
• **18:00** Bits festa parkean.
• **19:00** Txupinazoa.
AEK-ko ikasleek botako dute.
• **19:30** Txokolatada, plazan.
Antolatzailea, Izar Gorri Elkartea.
• **19:45-21:00** Mandoilek taldea, plazan.
• **21:00** pilota partiduak.
Mallabiko frontoiaren 50. urteurrena. Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuitua.
Finalak:
Gorka-Cecilio
Mendizabal III-Larrinaga
Mallabiko frontoia inauguratu zutenei omenaldia:
Garitaonandia-Astarloa
Mendieta-Berasaluze
Xala-Merino II
Irujo-Laskurain
• **23:30** Joxpa taldearekin erromeria plazan.

ABUZTUAK 15, EGUAZTENA
Andra Mari Eguna
• **11:00** Meza Nagusia.
• **12:00** Mallabiko Gazte Alai dantza taldea eta bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Amets Arzallus. Plazan hasi eta frontoian amaitu.
Ondoren, Emilio Pradera Arregi organo jotzaileari omenaldia egingo diote urteetako lana eskertzeko.
• **17:30** Mallabiko XXII. Harri-jasotze saria. Harri Txikia Kirol Etxean.
100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola.
-Urrutia (Leitza, Nafarroa)
-Izeta III (Aizarnazabal, Gipuzkoa)
-Izeta IV (Zarautz, Gipuzkoa)
-Jagoba Otaegi
(Aizarnazabal, Gipuzkoa)
-Aimar Galarraga (Orio, Gipuzkoa)
-Urpe (Arantzazu, Bizkaia)
-Inhart (Ondarroa, Bizkaia)
• **17:30** Tute, mus eta briska txapelketa, tabernetan.
• **23:00** Mikel Markez eta Erramun Martikorena, parkean.

ABUZTUAK 16, EGUENA
San Roke Eguna
• **11:00** XIII. Paella eta I. Marmitako Lehiaketarako izen ematea.
• **12:00** Meza Nagusia.
• **14:00** Jubilatuen bazkaria probalekuan. Bazkal ostean, Mallabiko trikitilariak, Mañukorta eta Beñat Ugartetxea bertsolariak egongo dira.
• **17:30** taldeen arteko jolasak.
• **20:00-21:00-23:00/24:30** Txerri errea, sagardoa eta MP5 taldeagaz erromeria, plazan.

ABUZTUAK 24, 25, 26 eta 27
XXIV. Idi proba txapelketa

Erramun Martikorenak eta Mikel Markezek girotuko dute zapatua

Hainbat berrikuntza prestatu dituzte Mallabiko jaietarako: txupinazoa alkate txikiak botako du, eta Emilio Pradera Arregi organu jotzaileari omenaldia egingo diote

Euskal kantagintzako ahots ezagun bi elkartuko dira Mallabiko jaietan. Abuztuaren 15ean, Mikel Markezek eta Erramun Martikorenak Mallabia bisitatuko dute. Euskal Herriko hainbat herritan kontzertuak eskaini eta gero Mallabiako taula gainera igoko dira. Bi belaunaldiko kantagintza elkartuko dituzte. Batzuetan bakarrik eta beste batzuetan elkarrekin, abesti ezagunekin gozatzeko aukera eskainiko diete bertaratzen direnei.

MP5 taldeak, berriz, erromeria doinuak ekarriko ditu Mallabira abuztuaren 16an, jaiei amaiera emateko. Txerri errea eta sagardoa banatuko dituzte plazan.

Umeentzako jaiak

Umeei zuzendutako egitarauan nobedade asko jaso dituzte aurten. Abuztuaren 14an, guraso elkarteak aukeratuko duen ume batek alkate txikiaren kargua hartuko du. 11:30ean txupinazoa bota eta alkatearen makila hartuko du. Ostean, puzgarriak, salto jokoak eta beste hainbat jolasetan parte hartzeko aukera izango dute herriko txikienek. Arratsaldean, bits festa prestatuko dute parkean.

Emilio Praderari esker ona

Elizako organoaren 100. urteurrena delaeta, Emilio Pradera Mallabiko organo-jotzaileari omenaldia egingo diote jaietan. Xabat Areitioaurtena zinegotziak adierazi duenez, Praderari urteetan egindako lana eskertu gura diote. Ibilbide luze bezain oparoa du herrian. Hamalau urtegaz ekin zion organoa jotzeari eta 85 ditu Praderak; beraz, 71 urte daramatza lanean. Gaur egun ere organoa jotzen du. 1962an *Mallabiko Ama* abestia konposatu zuen. Pieza hau urtero abesten dute herrian. Beste ekintza askoren artean, mezak euskalduntzen lagundu zuen.

> Guraso elkarteak aukeratutako ume batek alkate txikiaren kargua hartuko du

> Hamalau urtegaz ekin zion organoa jotzeari eta 85 urte ditu Praderak; 71 urte daramatza lanean

Frontoiaren estreinaldia gogoratuko dute: 50 urte

Mallabiko frontoiaren 50. urteurrena delaeta omenaldi berezia antolatu dute. 1962ko abuztuaren 15ean frontoiaren inaugurazioan profesionalen partida jokatu zuten lau pilotariak omenduko dituzte aurten, abuztuaren 14an: Pedro Garitaonandia zaldibartarra, Jose Antonio Astarloa Ermuarra, Jesus Mendieta lekeitiarra eta Antonio Berasaluze berriztarra. Partida hartan, Garitaonandia eta Astarloak irabazi zieten Mendieta eta Berasaluzeri, 22-18. Pedro Garitaonandia eta Jose Antonio Astarloa gonbidatuta daude ekitaldira, baita hilda dauen Jesus Mendieta eta Antonio Berasaluzeren senitartekoak ere.

> 1962ko abuztuaren 15ean inaugurazioan jokatu zuten pilotariak omenduko dituzte

Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituaren finala jokatuko dute lehenengo, 21:00etan. Gorka eta Ceciliok osatutako bikoteak Mendizabal III eta Larrinagaren kontra jokatuko dute gero. Inaugurazioko partidua jokatu zuten lau pilotariak omendu ostean, punterengo pilotarien partida jokatuko dute Mallabian, Xala eta Merino II.a Irujo eta Laskurainen kontra.

Euskara ikasi dutenak izango dira protagonista txupinazoan

AEK-k 25 urte daramatza Mallabia euskalduntzen; gaur egungo eta behinolako ikasleek jaurtiko dute txupinazoa udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emateko

Mallabian euskara ikasi duten herritarrei errekonozimendua adierazteа. Horixe izan da AEKri txupinazoa jaurtitzeko proposamena egiteko arrazoia. Jaietako protagonista bilakatu dira, beraz euskaldunberriak.

Juanmi Bravo da Mallabian euskara klaseak ematen dituen AEK-ko irakaslea. Hiru urte daroatza eta datorren ikasturtean ere Mallabian irakasle izaten jarraituko duela azaldu du. Euskaltegian pozik daude, ikasle zein irakasle, udalak jaietarako luzatu dieten gonbitagaz. Orain oporretan dauden arren, jaietarako elkartuko dira berriro AEK-ko ikasleak. Dagoeneko erabaki dute txupinazoa nork jaurtiko duen abuztuaren 14an: "Bost-sei pertsonaren artean botako dute txupinazoa. Urteetan ikasten ibili direnek eta gaur egun dabiltzanek elkarrekin emango diete jaiei hasiera".

> Euskaltegian pozik daude, ikasle zein irakasle, udalak jaietarako luzatu dieten gonbitagaz

AEK-ko ikasleak eta eskuman Juanmi Bravo irakaslea.

Mende laurden euskara ikasten

Orain 25 urte ekin zion AEK-k Mallabian euskara irakasteari. Eten txiki batzuk egon diren arren, mende laurdeneko ibilbidea osatu dute. Juanmi Bravoren berbetan, orain inoiz baino baldintza hobeagoetan dihardute eskolak ematen. Hamalau ikaslek jardun dute ikasturte honetan. Euskara ikasteko gogorik ez zaie falta beraz, Mallabian.

Talde bi osatu dituzte herrian. Batek goizez dihardu eta beste batek arratsaldez. Gela bi sortzea aurrerapausu handia izan dela gogoratu du AEK-ko irakasleak: "Ikasle askok txandaka lan egiten du. Orduan, talde bakarra izanda, hainbat ikasle eskolen erdietara ezin izaten ziren etorri. Txanda bi martxan jartzeko proiektua azaldu genion udalari eta proposamena ondo iruditu zitzaien. Bi ikasturte daramatzagu horrela".

> Hamalau ikaslek jardun dute ikasturte honetan. Euskara ikasteko gogorik ez zaie falta

> Azpiegitura eta euskaltegiaren finantziazioaren ardura udalarena da

Udala, laguntzaile

Udalaren babes barik gela bi sortzeko urratsa ezingo zutela eman adierazi du Bravok. Eskolak ematen dituzten azpiegitura eta euskaltegiaren finantziazioaren ardura udalarena da. "Emandako laguntza eskertu behar diogu Mallabiko Udalari".

Mallabiaren kasuan, euskaltegian maila askotako jendeak elkarrekin ikasten du. Gela berean urte askoan ikasten daramaten ikasleek hasiberriekin bat egiten dute. Aldeak gorabehera, ondo moldatzen direla dio Bravok: "Ikasleek ulertzen dute herri txikia izanda horrela izan behar duela".

IRITZIA

gutunak@anboto.org

Mila esker Txapel eta Idurre

Anboto astekariaren sorreran zerikusi handia izan zuten Durangaldeko euskara elkarteek. Orain hamar urte ereindako haziak fruituak ematen jarraitzen du. Barikuro Durangaldeko hamabi herrietako postontzietan Anboto astekaria jasotzeaz gainera, *anboto.org* webgunean eskualdeko albisteak edozein momentutan ezagutu daitezke . Erazen esperientziatik astekari berria martxan jartzen eskualdeko hainbat lagunek parte hartu zuten. Talde horretan jardun zuten lagun bi hamarkada honetan gure zuzendaritza batzordeko kide izan dira: Gorka Barruetabeña *Txapel* eta Idurre Maortua. Gure inguruko bati euskaltzaleok barruan duguna atera beharko genukeela entzun diot sarri, gure sentimenduak adierazi. Heldu da bada momentua.

Ez dakit gogoratuko duzun *Txapel*, baina Anboton zuzendari kargua hartu nuenean kafe bat hartzeko hitzordua jarri genuen. Edozertarako hor zeundela esan zenidan, eta ez zenbiltzan gezurretan. Arazoak kontatzeko poztasunak azaltzeko baino gehiago gogoratu naiz zutaz *Txapel*, hori ere aitortu behar dizut. Laneko arazoen aurrean sarritan hustu ditut barrenak zugaz telefonoz berba egiten. Egunerokotasunak irensten gaituenean gure iparra non dagoen gogoratu izan diguzu. Ilusio eta ametsen defendatzaile sutsua. Asko zor dizu zuri Anbotok.

Idurre, Anboton zuzendari moduan egindako lehenengo zuzendaritzetan ondo gogoratzen dut ama izan berri zinela. Umetxoaren karrotxoa eskailera luzeetan igotzen laguntzen genizun batzar amaigabeetara etortzeko. Makina bat bilera konpartitu ditugu urteotan. Zure iritzi zentzudunek beti lagundu digute aurrera egiten. Lanez lepo egon arren, mezuak erantzuteko beti atera duzu unetxo bat. Zure jarduna ere klabea izan da Anbotoren ibilbidean.

Zuzendaritza batzordetik jubilatu zarete biok. Anbotoko familia osoak bihotzez eskertzen dizue euskararen alde egin duzuen lan isila. Beste pertsona batzuei erreleboa eman gura diezue orain. Jasone Agirre eta Julen Orbegozoren laguntasuna izango dugu hemendik aurrera Durangaldeko euskara hutsezko komunikabide bakarra indartu eta sendotzeko. Ondoetorriak gurera.

Jone Guenetxea - Anbotoko zuzendaria

Bizikletaren erabilera Durangon

Durangon egiten diren bizikleta joan-etorriak %6 igo omen dira azken hiru urteotan. Hala esan zuen aurreko astean Garapen Iraunkorraren zinegotziak, Iker Ocejak. Aurreko asteko Anboton irakurri zitekeenez, zinegotziaren arabera, garraio jasangarria bultzatzeko beharrean, bide onetik doazela erakusten dute jaso dituzten datuek.

Baina bizikletaren erabilerak gora egiteak besterik barik garraio jasangarria dakar? Izan gaitezen serioagoak, eta eman ditzagun datuok fidagarritasun eta osotasun minimo batekin mesedez. Horretarako garraio banaketa osoaren datuak zeintzuk diren ezagutzera eman beharko lirateke. Motorizatu gabeko joan-etorriak (oinezkoak eta bizikleta) eta joan etorri motorizatuak (garraio publikoa eta auto pribatua). Eta azkenik zehaztu eta ezagutzera eman beharko litzateke nondik etorri den %6ko hazkunde hori. Estatuko beste hiri batzuetako datuekin alderatuz gero, hemen ere seguruenik bizikleta erabiltzen hasi direnen gehiengo oso handi bat, aurretik euren joan-etorriak oinez egiten zituztenak izan dira.

Bizikletaren erabilerak gora egin du baina hori bezain nabarmena da auto pribatuaren erabilerak ez duela behera egin. Autoak erdigunetik kentzeak ez baitu esan nahi auto horrek desagertu direnik. Arazoa beste norabaitera lekualdatu dela baino ez da.

Garapen Iraunkorraren zinegotziaren adierazpenak, Durangoko bidegorriaren 6. fasearen aurkezpenaren baitan egin ziren. Udalak onartutakoaren arabera mota horretako hamar kilometroko sarea izango dugu herrian. Baina beharrezkoak al dira bizikletentzako bidegorri horiek? Eraginkorrak al dira? Seguruak al dira?

Kontuan hartuz gero bidegorriok non eta zelan dauden eginak, erantzuna zalantza izpirik gabe ezezko borobil bat da. Europako txirrindulari-elkarte askoren iritziz bizikletaren lekua kalea da, hiri-barruan autoek erabiltzen duten espazio fisiko berbera. Bizikleten lekua ez baita espaloi gainean egindako bidegorri bat. Segurtasun sentsazio faltsu bat ematen dute baina ez dira seguruak ez txirrindularientzako ezta oinezkoentzako ere. Estuak dira eta ez daukazu espazio fisiko nahikorik bat-batean sortu litzekeen ezustekoak saihesteko. Hainbat azterketek erakusten duten legez, askoz ere seguruagoa da herri barruan bizikletarekin errepidetik ibiltzea. Modu egokian joanez gero, espazio gehiago daukazu ezustekoak saihesteko. Azterketa asko daude horren inguruan baina luze joko luke gehiago sakontzeak.

Bizikletek ez diote oinezkoei lekua kendu behar, espaloia eurena baita. Bizikletek autoei irabazi behar diote lekua, autoek darabilten espazioa baita bidegorririk onena eta seguruena. Ikasi beharreko elkarrenganako errespetua baino ez da behar.

Eneko Garitaonandia - Durango

Klik batean @

Sabado-a

Badaoz gauza batzuk eztuazenak ulertzen: jai hau eittie erabakitzen da; jentie bertara juteko, halako kartel zatixe eittie erabakitzen da; dana gazteleraz idaztie barik zeozer euskeraz idaztie erabakitzen da; ta horretarako baten bat izendatzen dabe. Honarte dana ondo. Behin hona heldute, eztotena ulertzen da zelan ezin daben aukeratu baten bat euskeraz ondo dakixena. Zer ipiniko daben erabakitzen da, ta idazten hasten dienien, "osteguna, ostirala, *sabado-a*, igandea". Talde guztittik ezta inor konturatu? Diseinua eitterakuen edo onartzerakuen, inor ezta konturatu? Eta inprimatzerakuen? Eztot sinesten talde guztixen ez dauela inor, euskera apur bat dakixenik ta hau ondo jartzeko kapaza ez danik. Hiztegi baten ikustie ez dot uste hain zaila danik. Hurrenguen halako gauza bat euskeratzeko laguntzarik biher badabe, laguntzie besterik ez dabe eskatu biher.

Miren Manzisidor - Durango

Sei hankako mahaia

Urdaspal
Bolinaga
Bildu

Burujabetza ekonomikoa

Gaur ez dut berbarik egingo SuperSur (edo SuperZor, Interneten dabilen bideoa ikusi duzue? Bilatu ezazue...), %11 birziklatzetik %80 inguru birziklatzera eramaten gaituen kudeaketa sistema, Gipuzkoako errepideen obretan PNVren gestio eskasak izandako 384 milioi eurotako desfasea (zenbait obratan %52ko gainkostua izan duena; Durangoko igerilekuak gogorarazten dute, baita hizkuntza eskola ere) edo Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Durangoko gestioaren inguruan esandakoari buruz.

Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren eta euskal herritarren kontra inoiz buruturiko eraso sozial eta ekonomiko larrienaren aurrean gaude, eta horren inguruan egingo dut berba. PPk dekretatu dituen azken neurri murriztaile guztiz larrien aurrean, Euskal Herria Bilduk kalera ateratzeko eta mobilizatzeko deia egin dio euskal jendarteari, defendatzeko aukera eskainiko digun gehiengo sozial eta politikoa antolatuz.

Izan ere, Raxoiren gobernuak, aurretik Zapaterorenak egindakoan sakonduta, larritasun bikoitza dakarren neurri sorta ezarri du. PPren neurrien helburua da Espainiako eskuinaren estatu eta gizarte eredua ezartzea, beren Espainia eredua: ongizate estatua desegiten dute eta, aldi berean, Estatuaren zentralismoan sakontzera datoz. Batetik, aldez aurretik pentsatutako sistema publikoaren eta ongizate estatuaren desegitea gauzatzen du; hau da, krisi sistemiko honen eragile nagusia den mundu mailako finantza eta banka sistema elikatzeko, babes sistema publiko osoa deuseztatzeko neurriak ezarri ditu. Hau lapurreta da, sakeoa eta ez beste ezer: diru eta babes sistema publikoen desmantelamendua da.

Honegatik guztiagatik eta toki faltagatik hemen sartu ezin diren beste argudio askorengatik, larunbatean 17:30etan Bilboko Jesusen Bihotzetik abiatuko den manifestaziora joateko deia luzatzen dizuet.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MANARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko uztailaren 20a
10. urtea - 468 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK

ESTETIKA ZENTROAK

Masajeak udan, frutekin

Udako egun beroak freskatzeaz gainera, helburu estetikoak ere baditu frutak, adituek diotenez. Frutekin egindako masajeen bidez, azala era naturalean zaindu ahal da. Bitamina eta gatz mineralak osasunerako ere aberasgarriak izango dira, gainera. Masaje terapeutikoekin elkartuta, Frutoterapia metodoa erabiltzea gomendatzen dute adituek.

Masajea emateko, zukua egin behar da frutekin. Fruta bakoitzak helburu baterako balio dezake. Esaterako, zitrikoak kolesterola jaisteko erabiltzen dira. Mahatsak, bestalde, hipertentsioari eta anemiari aurre egiteko balio du. Estetikoki ere antzera gertatzen da. Albertxikoa zelula eragilea da, kokoak azala indartzen du, laranja eta limoiak garbitzen laguntzen dute... Masajea emateko, zukuek %100 naturalak izan behar dute. Hau da, ezin dute kontserbagarririk edo antzeko osagarririk eduki.

Emaitzak zortzigarren edo hamargarren saioaren ostean agertzen hasten direla diote adituek. Gainera, helburuaren arabera beste tratamentu batzurekin nahastea ere posible ikusten dute. Adibidez, zelulitisaren kontra egiteko, txokoterapiagaz batera erabili ahal da.

@anbotokirola

KIROLAK >

“Urrea irabazteko borrokatuko dut, jakinda besteek ere helburu bera izango dutela”

Maider Unda, astelehenean, Oletako bere baserrian.

DATUAK

- Maider Unda, 35 urte, Otxandio
- Borroka librean parte hartuko du (72 kilora arte)

PALMARESA:

- 2008an, bosgarren eta diploma olinpikoa Beijingen
- 2009a, brontzea Munduko Txapelketan
- 2010ean, brontzea Europako Txapelketan
- Hamahiru bider Espainiako txapeldun

Badaki 35 urtegaz azkenengo Olinpiar Jokoak izan ahal direla, baina Maider Unda sasoian dago eta borroka librean urrearen bila joango da Londreseko jokoetara. Abuztuaren 9an ariko da borrokan

Orain asteburu bi Espainiako sari nagusian parte hartu zenuen. Londresen egongo diren borrokalari asko izan ziren han ere. Zelan daude arerioak?

[Stanca] Zlateva bulgariarraren kontra galdu egin nuen. Burua asko sartzen du, ematen dizu eta… Epaileari ere esan nion ez al zuen ikusten. Joko zikinarekin hasten direnean, borrokatik atera egiten naute eta horixe gertatu zitzaidan: kontzentrazioa galdu nuen. Hurrengo egunean gauza bera gertatu zitzaidan Svetlana Saenco moldaviarraren aurka. Ileetatik tiraka hasi zitzaidan, eta kontzentrazioa galdu nuen.

Euren jokamoldera eraman zintuzten.

Bai. Gure kirolean garrantzia handia du norbere jokamoldea kontrakoen gainetik ezartzeak. Nire borrokatzeko modura ekartzen bazaitut irabaziko dizut, eta alderantziz.

Alderdi mental hori zelan entrenatzen da?

Lehiatzen, sarritan lehiatzen. Hori ezin daiteke egunerokoan entrenatu. Askotan saiatu naiz. Indarra eta teknika bai, baina beste hori ezin da. Lehiaketaren tentsioak erakusten dizu. Hori ezin daiteke simulatu.

Zlateva munduko txapelduna da gaur egun. Bera da faborito nagusia?

Gatxa da faboritoak bereiztea. Zlateva munduko txapelduna da, baina Europakoan ez zuen ezer egin. Eta txapelketa hori [Maja Gunvor] Erlandsen norvegiarrak irabazi zuen eta ez da Olinpiar Jokoetarako sailkatu. Begira zelako gorabeherak. Zozketa kontua da. Arerioaren jokamoldea ez bada zuretzako egokia, eskemak apurtzen dizkizu.

Borroka librean garrantzia handia du aurretiko zozketak.

Bai. Londreserako hamazortzi borrokalari sailkatu gara eta txapelketaren aurreko egunean zozketa bidez erabakitzen dira parekatzeak. Azkenengo laurek aurretiko fase bat egin behar dute. Aurkari bata edo bestea egokitu, asko aldatzen da kontua. Munduko txapelduna ere egokitu ahal zaizu.

Zein da zure borrokatzeko modua?

Erasokorra naiz eta etengabe arerioari ebatzen saiatzen naiz. Aurkakoak nekatu egiten dira eta desgaste handia eragiten die. Borrokatzeko modu horrek funtzionatzen duela eta min egiten duela ikusi dugu sailkapen faseetan. Indar kontuetan, beharbada, indartsuena izango naiz nire pisuan, eta aprobetxatu egin beharko dut.

Olinpiar Jokoetan zein izango da zure helburua?

Borrokatu, urrezko domina irabazteko borrokatuko dut, beti ere jakinda besteek helburu bera izango dutela. Orain lau urte bosgarren geratu nintzen eta behintzat hori hobetzea nahi dut.

Zure azkenengo Olinpiar Jokoak izan daitezke?

Bai, hori pentsatzen dut. Ni ez noa ezeri ateak ixtera, eta etortzen bada ederto. Baina uste dut apurka-apurka bajatzen joango naizela eta 39 urtegaz ez naizela Rio de Janeiroko jokoetara helduko. Beste bizimodu baten desioa ere badut. Ez dut etxean eta familiagaz denbora asko emateko modurik. Gauza askori uko egiten diezu eta ez zara konturatzen. Beste bizimodu bat nahi dut apurka.

Denbora asko kentzen du borroka librean aritzeak.

Bai, sarritan kanpotik zabiltza, hemen ez dagoelako ohiturarik. Baina nik nire kirolagaz gozatu egin dut. Badakit batzuetan sufritu egin behar dela beste batzuetan gozatzeko. Gainera, hemen bizi naiz eta hori asko da.

Senitartekoak zugaz joango dira Londresera?

Nire mutilaguna badoa eta bere familia osoa eta lagunak ere bai. Dezente goaz. Egun asko izaten dira. Egun onak eta txarrak. Nekatuta zaudenean ezer egiteko gogo barik zaudenean… Jendea ondoan izateak asko laguntzen du. Txapelketa batean ehuneko ehunean ez bazaude kontrakoak nabaritu egiten du.

> *“Badakit batzuetan sufritu egin behar dela beste batzuetan gozatzeko”*

Zure ibilbideko zein une on gogoratzen duzu bereziki?

Orain lau urteko jokoak. Ez nuen uste hain gora helduko nintzenik. Une oso politak bizi izan nituen. Pena bat dut: borrokaldi batean desgaste ikaragarria izan nuen eta brontzerako lehiara indar barik heldu nintzen. Orain badakit desgastea neurtu beharra dagoela. Ikasgai hori ikasita daroat. Jokoetatik kanpora geratu eta hurrengo egunean gorputza txikituta nuen, jartzeak ere min ematen zidan. Gorputzean horrelako mina izan dudan aldi bakarra izan da.

Une txarren artean lesioak daude. 2004an denboraldi osoa galdu zenuen belauneko bursitis bategatik.

Bai, kirolaria bere bakardadean. Benetako bakardadean. Esperientzia horiek kontatu daitezke, baina bizita bakarrik ulertzen dira. Madrilen apurtu nintzen. Etxera bueltan ez nuen lehiatzen jarraitzeko gogorik. Entrenatzeak bai, baina lehiatzeak ez ninduen motibatzen. Gainera, beharbada, txarto ematen du, baina behean zaudenean jendeak zikinkeria gehiago botatzen dizu gainera. Horrela da. Behehan zaudenean inor ez da zutaz akordatzen eta ematen du orduan daukatela aukera erasotzeko. ■ J. D.

> Bideoa: **www.anboto.org**

Orain asteburu bi, Espainiako Sari nagusian.

Iñigo Gabiriak Pirinioak zeharkatuko ditu, hegaz

Gipuzkoatik Gironara parapentean joateko hamabi egun izango ditu Elorrioko kirolariak, X-Pyr probaren lehendabiziko edizioan

Iñigo Gabiriak 21 urteko esperientzia du parapentean.

Aurten lehenengoz antolatu dute X-Pyr parapente proba, eta bertan parte hartuko du Iñigo Gabiria elorriarrak. Abuztuaren 5ean Hondarribian hasiko da proba eta parte-hartzaileek hamabi egun izango dituzte Gironako Port de la Selvako hondartzara heltzeko (Herrialde Katalanak). Herri bien artean 440 kilometro eta Pirinioetako tontorrak daude.

Parte-hartzaile bakoitzak laguntzaile bat izango du, estrategia diseinatzeko, aholkuak emateko edo ahal duenean laguntzeko. Gabiriaren laguntzailea Iñigo Mendibil atxondarra izango da.

Proba ez dago etapatan zatituta. Antolakuntzak Pirinioetako hainbat puntutan aurretik ezarritako kontrol guneetatik igaro beharko dute, baina nahi dutenean edo ahal dutenean. Ibilbidea oinez egitea ere baimenduta dago, uneren batean hartara behartuta badaude. Egun bakoitzean, gehienez, hamazazpi orduz ibili ahalko dira parapentean edo oinez.

Iaz ibilbide bera egin zuen

Iaz Gabiriak ibilbide bera egin zuen, baina bere kontura.

> 12 egunetan gertatzen dena zuzenean jarraitu ahalko da web bidez

Orduan hartutako esperientzia eta batutako informazioa baliagarriak izango zaizkiola onartu du, baina beste faktore asko ere kontuan hartu behar dira: "Zortea, estrategia, teknika… Denetarik behar izango dugu. Lasterketa amaitzea da helburua eta ez da gutxi; hamabi egunean ibilbide hori egitea sekulako erronka da".

Gabiriak 21 urteko esperientzia du parapentean. Iaz bigarren geratu zen Espainiako txapelketan eta birritan irabazia du Parapenteko Iparraldeko Liga. Abuztuaren 5ean hasi eta probak iraungo duen hamabi egunetan gertatzen dena zuzenean jarraitu ahalko da web bidez: *www.x-pyr.com*. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez
Euskaltel-Euskadiko txirrindularia

Ez da ahalegin faltagatik

Astarloza, Verdugo, Txurruka eta, batez ere, *Samu*k Tourra utzi behar izan zutenean, askok nora ezean geratu ginela uste izan zuten. Hein batean, arrazoi zuten. Zein norabide hartu hausnartu behar izan genuen eta lehiaren, borrokaren eta etapa gosearen bidea aukeratu genuen.

Harrez gero taldean geratzen ginenok askotan saiatu gara. Oraingoz ez dugu etaparik irabazi eta aukera gutxi geratzen dira, baina lehenengo hamarren artean postu bat baino gehiago lortu dugu eta hori ez da batere erraza. Erlojupekoan zeregin gutxi dugu eta Parisko etapa esprintean erabakiko da ia seguru. Beraz, etapa bat geratzen zaigu, Brive-la-Gaillarden amaituko dena. Ihesaldia helduko den? Esprintera erabakiko den? Aurreikustea zaila da, Tour honetan gauza arraro asko gertatu direlako; inora ez zihoazela ziruditen ihesaldiak helmugara heldu dira eta alderantziz. Baina geratzen zaizkigun indarrak orduantxe gastatuko ditugu.

Niri dagokidanez, aurrera egiten duten ihesaldiak hartu ezinik nabil. Iaz eta aurreko urteetan errazago hartzen nituen. Saiatu naiz, baina ez dago modurik. Edo saiakera hutsalak izan dira edo aurrera egin dutenetan esprinterren taldeek bertan behera bota dituzte.

Eguazteneko etapan asko sufritu nuen. Bero ikaragarria egin zuen. Tourmaleteko lehenengo kilometroetan ondo sentitu nintzen. Gustura nindoan. Baina gorako zortzi bat kilometroren faltan argiak itzali zitzaizkidan. Nahi eta ezin. Indarrak ez zeuden lekutik atera behar izan nituen etapa amaitzeko.

Frantzian esperientzia berri bat Urienentzat

Paul Ricard zirkuituan ariko da lehenengoz

Igor Urien pilotu abadiñarrak Europako Radical Masters txapelketako laugarren proba izango du asteburuan Frantziako Paul Ricard zirkuituan. Txapelketa horretan parte hartzen duen lehenengo urtea denez, lasterketa askotako zirkuituak berriak dira beretzako. Paul Ricard zirkuitua ere ez zuen aurretik ezagutzen. Asteburuko lasterketa denboraldiko laugarrena izango da eta beste hiru geratuko zaizkio txapelketa amaitzeko.

Aurreko lasterketan, Herbehereetan, bigarren amaitu zuen, baina Urienen helburua "ikasten eta esperientzia pilatzen" jarraitzea da. ■ J.D.

Euskal txapela oparituta eskertu diote Poli Diazi boxeo ikastaroa

Poli Diaz boxeolari ohiak ikastaroa eman zuen joan zen zapatuan Abadiñoko Traña-Matiena auzoan. Fexmack Kickoxing Klubak eta Abadiñoko Udalak oroigarri bana eman zioten Diazi. Kickboxing klubeko kideek euskal txapel bat eman zioten eta Udalak Abadiñoko dorretxearen irudi bat. Abenduan beste ikastaro bat antolatzeko asmoa du kickboxing klubak. ■ J. D.

Dolomitetan ariko dira Lariz eta Ariznabarreta

Mendi lasterketetan diharduten Oier Ariznabarreta eta Iñigo Lariz Italiako Dolomitetan daude, gaur eta domekan lasterketa banatan parte hartuko dutelako. Gaur, Alba Kilometro Bertikalari aurre egingo diote eta domekan Dolomites Sky Race proban ariko dira.

Larizek lehenengoz parte hartuko du proba bietan eta bere helburua gozatzea dela dio: "Maila altua egongo da eta ahalik lanik txukunena egitea eta esperientzia berri horiek bizitzea ditut helburu". Ariznabarreta ere lehenengoz ariko da: "Gozatzea da helburua, baina baikorra izan beharra dago. Ea lehenengo hamabosten barruan sartzen garen". ■ J. D.

Euskaldun Torneoko lider dago Ramirez lasterketa baten faltan

Joan zen domekan Zornotzan jokatutako lasterketan hirugarren amaitu ostean, Euskaldun Torneoko liderra da Alain Ramirez, Beste Alde Orue Eskolako txirrindularia. Miguel Indurain txirrindulari ohiaren eskutik jaso zuen saria. Torneoa hiru lasterketek osatzen dute. Lehenengoan, Agurainen (Araba), zazpigarren sailkatu zen. Azkenengo lasterketa abuztuaren 30ean izango da Nafarroako Obanos herrian. ■ J. D.

Trinketean iazko txapela defendatuko du Uriartek

Amankomunazgoko Sariko finala jokatuko dute gaur, eta Rober Uriarte eta Ander Antxia abadiñarrak lehiatuko dira Tornosolon

Ander Antxia, orain asteburu bi, Tornosolo trinketeko finalerdietan. Kepa Aginako

Tornosolo trinketean jokatuko den Amankomunazgoko Saria finaleko txapela abadiñar biren artean dago. Rober Uriartek eta Ander Antxiak neurtuko dituzte indarrak. Uriarte iazko txapelduna da. Finala gaur jokatuko dute Tornosolo trinketean, 19:00etan.

Uriarte jokoa aurrean nahasten eta Antxia bere jokamoldera eroaten ahaleginduko da. Aspegaz profesionala izandako pilotaria abila da aurrean eta aireko jokoan arma baliotsua du. Antxia pilotari luzeagoa da eta binakako partiduetan atzean jokatzen du sarritan. Pilota teilatuan jartzen saiatu beharko da Antxia, eta Uriarteri aurreko jokoa mozten.

Aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte Mikel Rafael eta Mikel Gonzalez pilotariek. Biek ala biek lan handiak eman zizkieten Uriarteri eta Antxiari finalerdietan. Lehenengo finalerdian Frontis pilota enpresan ibilitako pilotari bik jokatu zuten: Ander Antxiak eta Mikel Rafaelek. Partiduaren ia-ia bukaerara arte oreka izan zen nagusi (31-31).

> Aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte

Antxia azken txanpan egindako tanto ilara bati esker sailkatu zen. Pilotari biek ondo jokatu zuten eta ez zegoen argi nor nagusitu zitekeen, indarrak pare parean zeudelako. Baina berdinketa horretatik aurrera, Antxia ia zuzenean joan zen 40ra. Pilota sarean sartzen eta teilatuan luze ipintzen asmatu zuen abadiñarrak eta merezita sailkatu zen gaur jokatuko den finalerako (40-32).

> Uriarte Antxia bere jokamoldera eroaten ahalegindu beharko da

Bigarren finalerdia Rober Uriarte eta Mikel Gonzalez berriztarraren artekoa izan zen. Uriartek Gonzalezen lesio bat aprobetxatu zuen markagailua irauli eta finalera sailkatzeko. Gonzalezek alde nabarmena hartu zuen partiduko lehenengo erdian (23-12 / 25-18). Partidua aurrera aterako zuela ematen zuenean, berriztarrak orkatila bihurritu zuen. Partiduan jarraitu zuen, baina bererik eman ezinda. Haizea alde zuela Uriartek markagailuari buelta ematea lortu zuen (40-31). ■ J. D.

Haizeak baldintzatutako txapelketan, lau urrezko

Bidezabal atletismo taldeko nagusiek hamasei domina irabazi dituzte Euskadiko txapelketan; haizeak errekorrak eragotzi zituen

Joan zen asteburuan Durangon jokatu zuten Euskadiko txapelketa haizeak eta Olinpiar Jokoek baldintzatuta egon zen. Batetik, haizeak errekorrak ikustea eragotzi zuen, batez ere korrikako probetan. Bestetik, Olinpiar Jokoen ondorioz, Espainiako txapelketa abuztu amaierara atzeratu dute eta atleta askoren prestaketa baldintzatu du.

Baldintza horietan, Bidezabal atletismo klubak hamasei domina lortu zituen. Horietako lau urrezkoak izan ziren, Belit Solar, David Fuentes, Natalia Urmakaeva eta Javier Ontosok lortutakoak. Nor bere proban nagusitasunez ibili zen, baina euren marka onenetatik urrun.

Arantza Morenok denboraldi paregabea borobildu zuen xabalina jaurtiketan zilarra irabazita. Orain asteburu bi, Aranjuezen jokatutako gazte mailako Espainiako txapelketan, bere jabetzan zegoen Espainiako errekorra apurtu zuen berriro gazteen mailan. Xabalinak 500 gramoko pisua duen modalitatean ezarri zuen marka berria. Durangon 600 gramoko xabalinagaz jardun zuen eta, une batez, modalitate horretan ere gazte mailako errekor berria ezarri zutela uste izan zuten denek. Baina epaileek neurketa denak txarto egin zituztela jakinarazi zuten, denei metro bat gehiago eman zietela. 47.26 metrotan utzi zuten Morenoren jaurtiketarik onena, errekorretik gertu, baina barik.

Bihar beteranoen txanda

Bihar, 17:00etan, Beteranoen VI. Atletismo Criteriuma jokatuko dute Durangon. Atletismoan lorpen handiak egindako hainbat atleta batuko da bertan. Esaterako, Aurora Perez eta Armando Roca etorriko dira. Bien artean Espainiako sei txapelketa irabazi dituzte. ■ J.D.

DOMINAK

URREZKOAK (4)
- **Belit Solar:** 800 metrotan
- **David Fuentes:** mailu jaurtiketan
- **Natalia Urmakaeva:** pisu jaurtiketan
- **Javier Ontoso:** 10.000 metro martxan

ZILARREZKOAK (7)
- **Arantza Moreno:** xabalina jaurtiketan
- **Pilar Fernandez:** 5.000 metrotan
- **Asier Eizagirre:** pisu jaurtiketan
- **Fernando Unzu:** 110 metro hesietan
- **Iraia Garcia:** 3.000 metro oztopoetan
- **Nahia Ibarzabal:** 5.000 metro martxan
- **Asier Zarandona:** disko jaurtiketan

BRONTZEZKOAK (5)
- **Iñigo Zarandona:** disko jaurtiketan
- **Gonzalo Santamaria:** pertika jauzian
- **Aitziber Gomez:** 100 metro hesietan
- **Arrate Lastra:** pertika jauzian
- **Ruth Sobera:** mailu jaurtiketan

Lejarreta Espainiako txapelketaren bila doa

Etzi BTTko Espainiako txapelketan ariko da, eta Hermida izango du arerio nagusia

Domekan, Espainiako mountain bike txapelketa jokatuko dute Murtziako Lorca herrian. Iñaki Lejarreta berriztarraren helburua (Orbea Racing Team) txapelketa irabaztea izango da. Iaz bigarren amaitu zuen Jose Antonio Hermidaren atzetik eta aurten ere bera ikusten du aurkari nagusi: "Duen onena ematen badu gatxa da berari irabaztea. Baina ondo entrenatzen nabil eta lasterketa bere kontrako buruz buruzko bat badago, edozer gertatu daiteke".

Hurrengo asteburuan, uztailaren 28an, Munduko Kopako azkenengo proban parte hartuko du Frantziako Val-D'isere herrian. Bosgarren ilaratik ekingo dio lasterketari. Sailkapen nagusirako lehian ez dabilenez, zer galdurik ez duela dio, eta arriskatu egingo duela. Lehenengo hamarren artean geratzea du helburu. ■ J.D.

Elite mailan lehenengoz irabazi gura du txapelketa.

AISIALDIA >

gazte gara gazte!

Musika artista bihurtuta bueltatu dira gazteak Berbaroren udalekuetatik

Berbaro euskara elkarteak Nafarroako Mendigorria herrian antolatu ditu udaleku finkoak. Gazteek ez dute aspertzeko denborarik izan. Hamar egunetan egin dituzten ekimenen artean egon dira bideo klip lehiaketa bat, Mendigorria TV sariketa eta inguru hura erakusteko sortu eta grabatu duten lip duba.

Berbaro euskara elkarteak Mendigorrian (Nafarroa) antolatu dituen udalekuetan zortzi eta hamabi urte arteko 61 gaztetxok parte hartu dute. Hamar egun bertan eman ostean, eguaztenean bueltatu ziren etxera. Artista eginda bueltatu dira gainera. Abesti ezagun bat aukeratu eta haren gainean bideo klipak grabatu dituzte taldeka, sormena landuz. Gero, lanik onenak bereiztu zituzten Mendigorria TV sarietan; edo bestela esanda, MTV sarietan. Lanik onenaren saria Erretxinak taldeak jaso zuen.

The Uskis taldearen *Olatuak bezala* abestia originaltasunez eta irudimen handiz eraman zuten irudietara Erretxinak taldeko gazteek. Beste arlo batzuk ere saritu zituzten: koreografiarik onenaren saria Bolabotiak taldeak jaso zuen; efektu berezien atalekoa Piñaburuek; bideo klip originalenarena, Berdelak taldeak; eta makilaje eta jantzi onenarena, Txirloak taldeak. Horrez gainera, Leire Apariciok eta Ander Azkaratek dantzari edo antzezle onenaren sariak ere jaso zituzten.

Mendigorria TV sariek ikusmin handia eragin dute Interneten. Artista gazteen gurasoek bertatik bertara jarraitu dituzte euren seme-alaben ibilerak blogean: *www.blogak.com/mendigorria*. Hantxe daude ikusgai bideo klip denak, sari banaketa ekitaldiko argazkiak edota Mendigorrian egindako ekitaldi guztien inguruko berriak: "Gurasoak denbora guztian hantxe sartuta egon dira. 'Noiz sartuko dituzue bideo edo argazki gehiago?' galdetzen ziguten kalean ikusten gintuztenean", gogoratu du Berbaroko Oihane Barrutiak.

Gazteek euren artista sena erakusteko aukera gehiago ere izan dute. Esaterako, Mendigorrian zeuden etxea eta inguruak erakusten dituen lip dub bat grabatu zuten. Txoko denak erakutsi ostean, igerilekuan eta uretan amaitu zuten bisita musikatua. Bideo hori ere blogean dago.

Udaleku ibiltariak

Berbarok eskaintza zabala izan du gaztetxoentzako. Hiru eta hamar urte artekoak Amankomunazgoko Behargintzaren azpiegituretan batzen dira. Guztira, 85 gaztetxo dabiltza, eta aste bakoitzean gai bat lantzen dute. Asteon *espazioa* izan da gaia eta, besteak beste, Donostiako Eureka! Zientzia Museoa bisitatu dute.

Hamabi eta hamalau urte arteko 29 gaztek, aldiz, Zumaian hasi eta Bakion amaitu den udaleku ibiltarian parte hartu dute. Guztira 71 gaztetxo ibili dira, Durangokoei Lasartekoak eta Hernanikoak ere batu zaizkielako. Surfa eta eskalada praktikatu dituzte, esaterako. ■ J.D.

Leire Apariciok era Ander Azkaratek antzezle onenaren sariak jaso zituzten

Gurasoek bertatik bertara jarraitu dituzte seme-alaben ibilerak blogean

Mendigorrian zeuden etxea eta inguruak erakusten dituen lip dub bat grabatu dute

laguntzaileak
berrizko udala
Garaiko Udala
Iurretako Elizateko Udala
Mallabiko Udala
Otxandioko Udala
Zaldibarko Udala

Jatetxe gida

Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

Jon Soloeta
Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
